

Eguberri giro beroa

R.P.S. 759151.L.G.

**EGUZKITAKO
BETAURREKOAK**

des
kon
tua

% 30

MODELO BERRIAK 2016

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

RALPH
LAPIN LASARTE OPTIKAK

OAKLEY

Ray-Ban

arnette

eta askoz gehiago...

Bilduma berriak
marka guztietan

**Gabon hauetarako
OPARI EZIN HOBEA**

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan



Erabateko gutizia aurkituko duzue gure produktuetan!

Gure ogiak:

- Cristal
- Molde Cristal
- Parisién
- Txabola
- Mendiko
- Kurkuma
- Leña ligth
- Espelta
- Vital
- Artoa
- Salud
- Artoa zerealekin
- Aleman
- Molino
- Verde
- Centeno molde



*Gure ogi FAMATUENA
CRISTAL OGIA*



**GURE
KALITATEA
DASTATU**



Bila bazabiltza, hementxe duzu

*2016 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!*



gure BETIKO kafea



Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA

Aurkibidea

- 4-8 Albisteak
- 9 San Tomas azoka
- 10-11 Olentzero eta Mari Domingiri harrera
- 12-13 Aspertzeko astirik ez Eguberrietan
- 15-17 Izaskun San Aniceto,
hiru astez Wukron misio lanetan
- 18-19 Eva Crespo,
Espainiako Body fitness txapelduna
- 22-23 Martin Berasategi,
40 urteko lana eta 7 izar Michelin
- 24-25 Roberto eta Xabi Rodriguez,
Ostadar SKTko Erregionalean bat
egin duten anaiak
- 26-27 Eguberriekin lotutako albisteak
- 28-29 Agenda
- 30 Zorion agurrak

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguro,
Gorka Alvarez, Jexux Artebe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

Ezohiko gaixotasunen kontrako superheroia

'Super H Hontz Zuriaren Lurraldean' liburuak gaixotasun arraroen ikerketarako dirua bilduko du

Ez ohikoak edota onkologikoak diren gaitzak dituzten umeei laguntza emateko 'Super H Hontz Zuriaren Lurraldean' liburuak aurkeztu dute. Miren Amurizak idatzi du eta kontzeptua eta marrazkiak Almudena Salasek egin ditu. Lasarte-Oriako Udalak, Urnieta, Hernani eta Astigarragoarekin batera lagundu du proiektua. Aterpea merkatarien elkarteak ere babesa eman dio, eta liburuak erosi ahal izango da zenbait saltokietan.

TXINTXARRI

Hiru helburu nagusi ditu Super H proiektuak. Haurren minbizia eta gaixotasun arraroak ikertzen dituzten proiektuak babestea, batetik. "Gizartea konzientziaztearen garrantzia" ere azpimarratu dute. Azkenik, gaitz hauek pairatzen dituzten umeak eta euren familiak laguntzeko asmoa dute.

Liburuak

Ekintza asko egin dituzte gaixotasun hauek ikertzeko dirua lortu nahian. Aipagarriena 'Super H Hontz Zuriaren Lurraldean' liburuak da. Almudena Salasek alabari gaixo zegoenean kontatutako istorio batean oinarritua dago. Miren Amuriza bertsolariak idatzi du eta marrazkiak Salasek berak egin ditu.

Gaixotasun arraroa diagnostikatu dioten haur baten istorioa kontatzen du ipuinak.

Ametsen mundu batean murgiltzen da, eta bertan aurkitutakoak eta bizitako abenturek gaitza hobeto eramatean laguntzen diote.

Super H hitz jokoa da Udaletxean diseinatzaileak azaldu duenez.

Gaixotasun arraroak pairatzen dituzten ume guztiak "superheroiak" dira, marrazkilariaren ustez, haien ausardia eta indarrarengatik. Hortik dator 'Super'. 'H' hizkia, aldiz, 'histiozito' terminotik eratorri dute. Denok dugun zelulak dira horiek, izatez kaltegarriak ez direnak, baina leku jakinetan pila daitezkeenak tumoreak sortuz.

'Merchandising'-a ere kaleratu dute. Besteak beste, esaldi positibodun pultserak.

Bi proiektu

Salasek nabarmendu duen moduan, bi proiektuarekin ari dira lanean momentu hauetan.



Udalak eta Aterpeak laguntza eman diote Super H elkarteak publikatutako liburuari.

Bartzelonako San Joan de Deu ospitalean Jaume Mora doktoreak zuzentzen duen ikerketa babesten dute. Lagerhans-en histiozitosia, umeen minbizi mota bat, tratatzeko modu baten bila ari dira.

Bestalde, Biodonostia Ikerketa Institutuarekin ere lanean jardute. Tumore pediatriko arraroen karakterizazio molekularra ikertzen dute, Idoia Garciak zuzenduta.

Salasek aipatu duenez, beste ikerketa lerro batzuk ere ireki dira Barakaldoko Guru-

ztetako Ospitalean. Hortaz, laguntza inoiz baino beharrezkoago dute.

Zailtasunak

Ezohikoak diren gaitzen ikerketek dituzten oztopoak azaldu dituzte Super H elkarteko kideek. Umeen kasuan, 7.000tik behin ematen diren gaixotasunak hartzen dira arrarotzat. Ondorioz, "farmazia industriarako ez dira errentagarriak", Salasen ustez. Bestetik, haiei buruz gutxi dakigunez, diagnostikoa zailagoa da.

Lasarte-Oriako Udalak Urnieta, Hernani eta Astigarragoarekin batera babestu du proiektua. Alkate Jesus Maria Zaballosek zehaztu du "instituzioek eta, batez ere, Estatuak babestu beharko litzukeela proiektu hauek".

Saltoki hauetan erosi ahalko da: Aritza mertzeria, Arkupe taberna, Iturbe oinetakoak, Ormazabal loradenda, Asmae zapatadenda, Urruzola mertzeria, Alcar lehioak, Olmi mertzeria, Santana informatika, Alba moda, Maya lentzeria eta Noelia fisioterapia.



Saridunak Udal eta alderdietako ordezkariekin.

2015eko kirolari onenak

Aurtengo kirolari onenak omendu ditu Udalak, larunbat goizeko ekitaldian. Alkate Jesus Maria Zaballosek azpimarratu zuen "lasarteoriatar guztientzako eredu" direla.

Sei kirolari omendu dituzte. Eneritz Busto atleta, body fitness txapeldun Eva Crespo, Axier Arteaga pilotaria, Maialen Chorrout piraguista eta Xabier Elizegi eta Iñigo Ibarburu igirilariak.

Eneritz Busto Caliko gazte mailako munduko txapelketan aritu da 100 hesidun metroko txapelketan. Espainiako txapeldun ere izan da.

Eva Crespo Espainiako txapeldun izan da laugarren aldiz body fitness modalitatean.

Axier Arteagak bihar jokatuko du Bankoa-DV txapelketako finala, eta aurki igoko da profesional mailara, Asegarce enpresaren eskutik.

Maialen Chorrout hirugarren izan da test olinpikoan, eta aurretik brontzezko domina lortu zuen 2012ko Joko Olinpikoetan, besteak beste.

Iñigo Ibarburu gazte mailako Espainiako txapeldunorde izan da 100 metroko tximeleta estiloan.


Xabier Elizegi Manhattan Island Marathon Swim lasterketa ospetsuan hirugarren izan zen.



www.electricidadarregui.com

Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/Hi-FI
- Instalazio elektrikoak



Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

Ahal Dugu garaile Lasarte-Orian

Parte-hartzea %72koa izan da herrian, 2011ko bozetan baino hiru puntu gehiago

Lasarte-Orian eta Gipuzkoan nagusi izan da Ahal Dugu-Podemos alderdia. Lehenengo aldiz, PSE-EE ez den beste alderdi batek lortu du botoetan nagusitasuna herrian. Bigarren izan dira, %24,83a lortuta, eta EH Bildu hirugarren %14,31rekin. Ahal Duguk eta EAJk bi kongresukide lortu dituzte Gipuzkoan, eta EH Bilduk eta PSE-EEK bana. Hala, 2011ko hauteskundeekin alderatuz aldaketa ugari egon dira.

TXINTXARRI

Zeresan mediatiko handiko hauteskundeak izan dira 2015eko Espainiako Gorteetakoak. Hautagaien arteko eztabaiden ondorengo irakurketek eta inkestetako gorabeherak ez zuten ikuspegia argi uzten.

Gipuzkoan bezala, Lasarte-Orian ere Ahal Dugu-Podemos izan da alderdirik bozkatuena, 2.883 lasarteoriarren konfiantza lortuz, bozkatzaileen %28,17a.

Gure herrian parte hartzea %72,42koa izan da. Hortaz, ia hiru puntuko gorakada izan du, duela lau urtekoen aldean.

2011koekin alde

2011ko hauteskundeetan PSE-EE eta Amaiur izan ziren boto gehien lortu zituzten alderdiak. Oraingoan, berriz, beherakada nabarmena izan dute. Lehenek 2.541 boto

lortu dituzte, duela lau urte-baino 768 gutxiago.


EH Bilduk, aldiz, 1.465 eskuratu ditu. Amaiurrek orduan baino 981 gutxiago. EAJk eta PPK ere emaitza okertu dute. Lehenek 91 eta bigarrenek 592 boto galdu dituzte.

Ciudadanos lehen aldiz aurkeztu da, 486 boto irabazita. Unidad Popularrek, PACMAK, UPyDk, Recortes Cerok eta Libertate Nafarrak ere bozkak izan dituzte.

Lidergo aldaketa

Lehen aldiz, PSE-EE ez den alderdi batek lortu ditu boto gehien Lasarte-Orian. Gipuzkoako beste hainbat herritan antzeko joera eman da. Izan ere, Donostian, Eibarren, Pasaian, Irunen, Oleretan edota Andoainen Ahal Dugu izan da bozkatuena.

Halaber, Udal Hauteskundeetako emaitzak nabarmen hobetu dituzte, orduan baino



Lasarte-Oriako bozken ehunekoen kopurua alderdika.

1.400 boto inguru gehiago lortuaz.

Ondorioz, Lurralde historikoan nagusitasuna eskuratu du Pablo Iglesiasek zuzentzen duen alderdiak. Nagua Alba zerrendaburuaz gain, Fernando Iglesias izango da Kongresuan. EAJko Joseba Agirretxea eta Iñigo Barandiaran ere egongo dira bertan, baita EH Bilduko Marian Beitialarrangoitia eta PSE-EEKo Odon Elorza ere.

Senatua

Borroka estuagoa egon da Senatuari dagokionez. Ahal Duguko Josetxo Arrietak lortu ditu boto gehien Lasarte-Orian, baina PSE-EEKo hiruak gertu izan ditu.

Gipuzkoari dagokionez, EAJ izan da garaile, eta aurkeztutako hiru hautagaiak, Maria Eugenia Iparraguirre, Victoriano Gallastegui eta Imanol Querejeta bertan izango dira. Ahal Duguko Josetxo Arrietak ere lortu du eserlekua.

EAE eta Nafarroa

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, EAJk eskuratu ditu kongresukide gehien, sei alegia. Ahal Dugu-Podemos izan da bozkatuena orokorrean, baina eserleku bat gutxiago lortu dute. PSE-EEK hiru izango ditu, EH Bilduk bi eta PPK beste hainbeste.

Alderdi abertzaleek ez dute ordezkapenik eskuratu Nafarroako Foru Erkidegoan. UPN-PPk bi izango ditu, Ahal Duguk beste bi eta PSNk bakarra.

Hala, aldaketa nabaria da orain dela lau urteko egoerarekin alderatuta. Orduan

Amaiur izan zen Hego Euskal Herrian eserleku gehien eskuratu zituen alderdia, zazpirekin. UPN-PPk, PSE-EE/PSNk eta EAJk bost lortu zituzten bakoitzak, eta Geroa Baik bakarra.

Ziurgabetasuna Espainian

Alderdi Popularrak irabazi ditu hauteskundeak Espainian, 123 kongresukiderek. PSOEk 90 eskuratu ditu, eta Podemos eta bere aliatuek – En Marea, En Comú Podem eta Compromis – 69. Ciudadanosek, aldiz, 40.

Ez dago garbi oraindik presidente nor izango den. Hauteskundeak errepikatze beharra egon liteke, akordio-rik ez balego.

Urtebetean, Legebiltzarra

2016ko udazkenean herritarrek Eusko Legebiltzarraren osaketa hautatu beharko dute eta, ondorioz, bertatik aterako den Lehendakaria.

Jakiterik ez dago zenbateraino estrapola daitezkeen igandeko datuak, baina Madrilen hartutako jarrerak erabakigarriak izan daitezke EAEn.




Parte hartzeak ia hiru puntutan egin du gora Lasarte-Orian

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

I.Urruzola

aroztegia



- Era guztietako arotz-lanak
- Armairu barrenduak
- Etxe barruko konponketak
- Parket flotantea

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel. 943 37 12 00/610 413 131
LASARTE-ORIA



Argazkiekin Lasarte-Oria gogoratuz

Julian Sagardiak bildutako argazkiak Zero Sette orkestraren doinuek lagunduta erakutsi zituzten

Urteari era berezian eman diote bukaera Zero Sette akordeoi orkestrako kideek. 'Gogoratzen duguna gara' diaporama eskaini zuten larunbatean Manuel Lekuona kultur etxean. Herriar ugari gerturatu zen Lasarte-Oriako argazki zaharrez osatutako erakustaldiaz gozatzen. Eskusoinu doinuek lagunduta, herriko kale, plaza, etxe, baserri, saltoki eta leku adierazgarri asko nola-koak ziren gogoratu edota ezagutu ahal izan zituzten.

TXINTXARRI

Sally Mann argazkilari estatubatuarrek esan zuten: "Argazkiek iraganeko atea irekitzen dizkigute, baina baita etorkizunari begirada botatzea ahalbidetu".

Erretratuek leku jakin baten historia eta bilakaerari buruz asko esan dezakete. Zero Sette akordeoi orkestrak hala pentsatu du, eta Julian Sagardia herritarren laguntzaz 'Gogoratzen duguna gara' diaporama eskaini zuten larunbatean Manuel Lekuona kultur etxean.

Lasarte-Orian egindako 300 argazki bildu eta doinu ezagunez lagunduta erakutsi zituzten.

Herriaren bilakaera

Lasarte-Oria zenbat aldatu den ikusi ahal izan zuten bertaratutako ikusleek.

Herriko historiako gune adierazgarriak erakutsi zituzten. Esaterako, golf zelaia,

aerodromoa edota 20ko eta 30ko hamarkadetan Europako erreferentetako izandako auto zirkuitoa.

Kaleak, baserriak eta herriko beste hainbat gune garai batean nolakoak ziren ikusteko aukera ere egon zen.

Bloketan banatu zuten emanaldia, lehenik airetik ateratako irudiak erakutsiz. Ondoren, kale, plaza eta etxeak ikusi zituzten, eta azkenik, baserri eta saltokiak.

Musikaz lagunduta

Zero Sette akordeoi orkestrak eskusoinu doinuekin girotu zituen argazkiak. Herriarekin zerikusi zuzena dutenak batzuk, Sorgin Dantza eta Lasarte-Oriako ereserkia kasu, eta Dire Straits bezalako talde modernoek bertsioak besteak.

Irudi eta musikaren arteko sintonia erabatekoa zen, eta momentuan momentuko argazkiak hobeto ulertzeko balio izan zuten.



Herriko kale, plaza, etxe, baserri, saltoki eta leku adierazgarrien argazkiak erakutsi zituzten.

Harrera beroa

'Gogoratzen duguna gara' diaporamak ikusmin handia piztu zuen. Manuel Lekuonako auditorioa herritarrez bete zen.

Argazki bilduma ikusten zuten ahala, oroitzapen asko etorri zitzaizkien burura askori. Besteak beste, zine zaharra, Dorre Etxea eta Gure Etxea taberna pantailan agertu zirenean, marmarra entzuten zen.

Dudarik gabe, askorentzat memoria ariketa emankorra izan zen, eta besteentzat Lasarte-Oriaren eboluzioa ezagutzeko parada egokia.



Doinu klasiko eta modernoak uztartu zituen Zero Sette orkestrak.



Mozanbikeko bidaia kontatu zuen Amurizak.

Mozanbike hizpide Miren Amurizak

Kapulana Bat Zintzilik' ize-neko emanaldia eskaini zuten Miren Amurizak igandean Abend Kafe Antzokian.

Mozanbiken bizitako esperientziak plazaratu du hausnarketa, kontakizun eta bertsoen bitartez.

Emakumeek erabiltzen dituzten oihal koloretsuak dira kapulana. Amurizak lasarte-riatarren aurrean bat zabaldu zuen.

Hasierako planak aldatuz

Amurizari Mozanbikera joan eta emanaldia prestatzeko proposamena egin ziotenean, alde aurretik ideia batzuk pentsatu zituen.

Lurrarrek loturiko gaiak, kontu politiko eta emozionalen nahastuko zituen.

Bidaiean konturatu zen planteamendua ez zela egokia, eta deskribapenera jotzea erabaki zuen.

Izan ere, ez du uste argudioak ematea edota Afrikari buruz hitz orokorrak esatea egokia denik.

Bizitakoa eta ikusitakoa deskribatzea eta azaltzea izan da Amurizaren hautua. Bertaratutakoek adi entzun zituzten haren kontakizun, bertso eta errezitaldiak.

Amaitzean, entzuleek solasaldia egin zuten bertsolari berriekin.

**%20ko
deskontua
eguzkitako
betaurrekoetan**



IRIGOYEN

OPTIKA

Gabon hauetan, oparitu osasuna!

*2016 zoriontsua
opa dizuegu!*

Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47





Burrumba elektrotxarangak gazteak jarri zituen dantzan.

JUNKAL APODAKA



Goiko argazkian Liher taldea, behekoan zunba.

Lasarte-Oria, kalean

Harrera bikaina izan zuen Kalera Fest jaialdiak

Jendetza ibili zen Lasarte-Oriako kaleetan larunbatean. Eguraldia lagun, I. Kalera Fest jaialdiak arrakasta izan zuen. Goizean pertsona mordoa ibili zen, batez ere, Okendo plaza inguruetan, zunba eta patinaje tailerrak egin ziren lekuan. Arratsaldean, berriz, gune ezberdinetan gozatu ahal izan zen estilo askotako kontzertuekin eta kalean zehar jo zuten batukada eta txarangekin.

TXINTXARRI

A bendua denik ez zirudien larunbatean Lasarte-Orian. Goizetik hasi eta gauera arte, eguraldi onak lagundu zuen Kalera Fest jaialdia.

11:00ak aldera hasi ziren ekintzak. Okendo plazan patinaje tailerra, mural margoketa, jolas kooperatiboak eta, gehien bat, umeei zuzendutako ekintzak egin zituzten.

Lorena Garciak zuzendutako zunba emanaldiak jende andana bildu zuen plazan, eta bai helduak baita umeak ere

animatu ziren gorputzak astintzera.

Arratsalde musikatua

Musikak hartu zuen lekukoa bazkalostean. 13:30etatik aurrera, 'Oaintxe In Deu' txaranga aritu zen poteoa girotzen.

Estilo askotako kontzertuak entzuteko aukera egon zen. Punka Sagardotegi kalean, rocka eta bluesa Kale Nagusian eta hardcorea Landaberri Institutu aurreko plazan, beste hainbatetan artean.

Kuadrillategiren eskutik rezibatukadarako materialak

prestatzen eta kantak jotzen ikasi zuten bertaratutako gazteek. Perkusio soinuak Dinbi Banda batukadak jarri zituen kaleetan.

Txikienek ere ederki pasa zuten arratsean. Puzgarrietan saltoka aritzeko parada izan zen Okendon eta Tonny magoak erakustaldia eman zuen Elurtza tabernan.

Zoramena gauean

Kontzertuak bukatu ahala, Burrumba elektrotxarangak jarri zuen giroa tabernetan zehar. Gazte ugari egin zuen dantza eta kanta Irungo taldearekin.

Tabernetan, aldiz, DJen sesioekin gozatu zuten herri-tarrek. Besteak beste, hip-hop, punk-rocka, reggae-a eta elektronika entzun ziren.

Antolatzaileek nabarmendu zuten asmoa "urteroko jaialdi" bihurtzea zela. Arrakastak animatuko ditu, ziur.



Txalagore taldeak bermua girotu zuen, eta Rock Kambrum-ek afalostea.

ETXEZARRETA

HARATEGIA



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

2016 zoriontsua
opa dizuegu!

Eguberri on!



50. URTEURRENA Erketz EDT-ren bilera

Erketz EDTk gaur egungo taldekideak eta urte guzti hauetan taldeko partaide izan diren guztiak gonbidatu nahi ditu abenduaren 29an 19:30ean Lasarte Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egingo den bilerara.

Bileraren gaia 2018an Erketz EDT taldearen 50. Urteurrena izango da eta prest dagoen jendearekin ospakizun berezi hau behar den moduan antolatzeko, komisio bat sortzea da helburua.

KIROL INSTALAZIOAK Kiroldegi eta kirol guneko ordutegia Eguberrietan

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak Eguberri eta Errege eguneko ordutegiak jakitera eman ditu.

Udal Kirol Instalazioak 2015 eta 2016 urtetarako onartua duen egutegiak dioena betez, abenduaren 24 eta 25ean, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1 Kirol Instalazioak itxia egongo. Urtarrilaren 5ean, berriz, irekita izango da 7:00etatik 13:00etara eta Errege egunean itxia.

LIBURUTEGIA Eguberrietako ordutegia martxan

Atzo jarri zen martxan Eguberri garaiko ordutegia Udal Liburutegian. Gaur, bihar eta 28tik 31ra goizez 10:00etatik 13:00etara bakarrik izango da martxan. Urtarrilan, 1 eta 5 izan ezik, goiz eta arratsalde izango da irekia. Urtarrilaren 1an itxia egongo da eta 5ean goizez bakarrik.

EUSKARA Motxian eby lehiaketa Usurbilera

Abenduaren 17an, 'Motxian eby' lehiaketako sari banaketa burutu zen Astigarragan. Sari nagusia, 300 euro, 'Usurbilgo Udazkena' esketxak eskuratu du eta bigarren saria berriz, 'Euskal euria' bideoaren egileek eraman dute, 200 euro.

Herri bakoitzeko bideo onenek ere 50 euroko sariak eskuratu zituzten. Lasarte-Oriako bideo onenaren saria 'KMK2015' bideoak lortu zuen, Usurbilgoa 'Plastifikatuak' taldeak eta Astigarragako berriz, 'Euskal euria' eraman du.

Bigarren urtez jarraian, Motxian eby esketx lehiaketa antolatu du Oarsoaldea eta Buruntzaldean gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin eta gazteak pozik agertu dira egitasmoarekin.

BEHEMENDI Oinezko ibilbideak Sagardoaren Lurraldean

Eskualdeko zenbait udalek "Oinezko ibilbideak Sagardoaren Lurraldean" mapa plazaratu dute, eskualdean turismoa promozionatzeko. Bertan, hogoetik gora oinezko ibilbide deskribatzen dira, eskualdea osatzen duten udalerrietan barrena igarotzen direnak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), paraje naturalez, bista panoramikoez, monumentu megalitikoez eta abarrez gozatzeko.

Ibilbideek profil, zailtasun eta distantzia desberdinak dituzte, eta deskripzio txiki bat, abiapuntuarekin eta helmugarekin.

Mapa hori garatzeko, Behemendi Donostialdea Turismogunea udaleko teknikarien lankidetzan izan du, besteak beste.

ERREZITALDIA

Askatasun hitzak

'Harresi guztien azpitik' errezitaldia urtarrilaren 8an

Euskal Preso politikoen hitzek leku izango dute berriro ere Manuel Lekuona kultur etxean. Urtarrilaren 8an, ostirala, 19:00etatik aurrera, VI. 'Harresi guztien gaineratik, sarraila guztien azpitik' errezitaldia izango da. Aurten espetxe borroka eta kaleko sostengua izango da emanaldiaren ardatza.



Aurtengo errezitaldia prestatzen ari dira dagoeneko herritarren laguntzaz.

TXINTXARRI

Ibon, Santi, Rafa, Jabi, Pello, Aitzol eta sakabanatuta erbestean zein sasia diren euskal preso guztiak gogoan izango dituzte urtarrilaren 8an, ostirala, Manuel Lekuona kultur etxean.

Seigarrenez, 'Harresi guztien gaineratik, sarraila guztien azpitik' errezitaldia egingo da herrian eta beste behin, euskal presoekin idatzi eta lanak ikusgai izango dira Manuel Lekuonako oholtzan.

Aurten, espetxe borroka eta kaleko sostengua izango da emanaldiko ardatza.

Izan ere, antolatzaileek nabarmendu moduan, luzea da senideek, presoek eta hauen eskubideen alde herritarrek egin duten bidea.

"Gatazkaren konponbidean urratsak eman ahala iritsiko da bestelako ekimenak antolatzeko garaia, bien bitartean Harresien bestaldetik jasotako hitzak ilusioz eta artez jantziko eta zuekin partekatuko ditugu," atxiki dute antolatzaileek.

Emanaldiko sarrerak 5 euro balioko ditu eta salgai

izango dira kultur etxeko leihatilan.

Gonbidapena

Era berean, hurrengo egunean Bilbon izango den manifestazioarako deia ere luzatzen dute.

Bilbora autobusez joateko txartelak Ilargi, Gure Etxea, Artizar, Trumoi eta Insaustin daude salgai. 10:00etan iritertzen den autobuserako txartel bakoitza 12 euro balioko ditu; 15:00etan iritertzen den autobuserako txartelak berriz, 10 euro.

Fabrimusikala larunbatean Elebeltzen

Hirugarren urtez, Fabrimusikala 10 (multimusikala) + 3 (fabrimusikala) antolatu da abenduaren 26an, larunbata Elebetz Topagunean.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Txorimalo Gazte Kolektiboaren eta Elebeltz Eztabaida eta Sorkuntza Askerako Topagunearen 4. urtemuga ospatu nahi dute ekintza honekin.

Era berean, herrian ezarritako asialdiari alternatiba bat sortze bidean ospatzen zen

Multimusikala jaialdiari jarraipena eman.

Kontzertu eta Djak

Horretarako arratsaldeko 18:00etatik ordu txikiak arte iraungo duen jaialdia izango da Elebeltzera hurbiltzen direnen gozamenerako.

Hainbat talde eta bakarlari izango dira topaguneko oholtzan, Anitruta, Eneritz Furyak, Kaxianoren alabak, Ventura, Zona Especial Norte eta Superdozer.



Plateretan diskoak jartzen, berriz, Aural Mode, Xabeat, Iban Device, Furonia eta Paolo Solo.

aldika

produktu bereziak

**ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa**

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 377089 aldika@euskalnet.net

Zorionak eta Eguberri on!!







Erketz eta Kukukak gidatutako plazadantza saioan hainbat herritarrek mugitu zuten gorputza.



Telleri baserriko txerramak eta Ttakun KEren postuan tentuz prestatutako taloek arrakasta handia izan zuten.

San Tomas azoka jendetsua

Atzo arratsaldean zehar ospatu zen egun berezia

Bi urteren ostean, arratsaldean ospatu da aurten San Tomas azoka. Herritarrek ez zuten arazorik izan atzo ordutegia aldatu eta Okendo plazara gerturatu, txistorra dastatu eta sagardo trago bat edateko. Ttakun KEk prestatutako egitarau zabalaz gozatu zuten ehunka lasarteoriarrek.

Eguberriko festen aurrekari arrakastatsua izan zen atzo ospatutako San Tomas azoka. Herritar andana gerturatu zen txistorra dastatzera eta Ttakun KEk prestatutako egitarauaz gozatzera. Ohikoa den moduan, Telleri baserriko txerramak eta bederatzi kumeek piztu zuten ikusmira gehien lasarteoriarren artean.

Bi urteren ostean, arratsaldean ospatu zen berriro ere San Tomas azoka. Herritarrek ez zuten inolako arazorik izan ordutegia moldatu eta Okendo plazara gerturatzeko.

17:30ean Ttiriki-Ttarrakako kideak hasi ziren plaza giro-

tzten, pandero eta eskusoinuekin duten abilezia erakutsiz. Bien bitartean, hainbat herritar aritu ziren txistorra taloak eta antzekoak eskatzen, Okendon zeuden postuetan. Ttakun KE bera, Batxilergoko 2. mailako ikasleak, DBH 4. mailakoak eta Alboka abesbatzakoak aritu ziren produktu desberdinak saltzen atzo. Posturen batean eskaintzeko zuten guztia saldu zuten, azokak izandako arrakastaren seinale.

Seietan bertsolarien txanda izan zen. Patxi Etxeberria, Ane Labaka eta Beñat Iguaran aritu ziren oholtza gainean. Ikusleek txalo zaparradekin saritu zituz-

ten hirukoteak abestutako bertso guztiak.

Ondoren, Xumela abesbatzako kideek girotu zuten plaza. Errepertorioko kanta ezagunenak abestu zituzten ikusleen gozamenarako. Arratsaldeko unerik onenetakoa etorri zen orduan: Hainbat gartetxo taula gainera igo eta koruko kideekin batera aritu ziren kantuan eta dantzan, herrian zaletasun horrek etorkizuna duela erakutsiz. Talogintzak ere bai, hainbat haur aritu baitziren zeregin horretan Ttakunek prestatutako postuan.

Arratsaldea primeran amaitzeko, Erketz eta Kukukaren eskutik gorputza dantzan jarri zuten herritarrek. Plazadantza saioa egin zuten, giro ederrean, dagoeneko freskoa zen tenperaturari aurre egiteko. Bertan aritu ziren ordu eta erdiz, etxera gustura erretiratu aurretik.



Azokak iraun bitartean hainbat emanaldik girotu zuten arratsaldea. Horren adibide izan ziren bertsolarien zein Xumela abesbatzaren ikuskizunak.

aldizkariak
esku-orriak
kartelak
liburuak
egutegiak
katalogoak
papeleria
agendak
koadernoak
karpetak
logotipoak

INPRENTA
DISEINU GRAFIKOA
DISEINU EDITORIALA



antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus



Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko iristear

Desfilea, musika, bertsoa eta ezustekoak Olentzeroren harrera jaialdian

Etxeko txikiak dagoeneko Olentzero iristeko irrikitan daude. Ostiralean irekiko dituzte opariak, baina ostegun arratsaldean Olentzero, Mari Domingi edo Xixukori eskutitzak emateko aukera izango dute, Olentzeroren harrera ekitaldian. Porrotx bihurria ere tartean izango da bihurrikeriak egiten. Musika eta bertsoei ere lekua egingo zaie ekitaldian. Baina lehenik, haur, gazte eta helduek lagunduta Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ibiliko dira lau lagunak. Eguraldi txarra egitekotan, jaialdia, Loidi Barrengo frontoira mugituko litza-teke antolatzaileek jakitera eman dutenez.

Hiru egun besterik ez dira geratzen Olentzerok Lasarte-Oriako etxeetan dotore apaindutako zuhaitzen azpia opariz edo ikatzez betzeko. Dagoeneko batek baino gehiagok nahi dituen opariak eskatzeko eskutitza bidali dio Olentzerori eta azken egun hauetan txintxo portatzen saiatzen ari da eskatutakoa lortzeko.

Eskutitza oraindik prestatu ez dutenek, ostegunean Olentzero berari emateko aukera izango dute Okendo plazan Ttakun KEk antolatutako harrera jaialdi berezian. Olentzerorekin batera, Mari Domingi, Xixuko ahatea eta Porrotx ere izango dira.

Baina Okendo plazara iritsi baino lehen, Loidi-Barrengo pilotalekuan hasi eta herritik barrena kale jira egingo dute.

Hiru suziri

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurten berrikuntza bat izango da, suziriak botako dituzte Olentzeroren etorrera jakinarazteko, "Lehenengo Lasarte-Oriara hurbiltzean botako da, bigarrena Loidiko tunela igarotzen dutenean eta hirugarrena, desfileari hasiera ematean".

Hirugarren suziriarekin batera, beraz, kalejira erraldoiari hasiera emango zaio 17:00ak aldera.



16:45ean hasiko da Mari Domingi, Olentzero, Xixuko ahatea eta Porrotx pailazoaren desfile koloretsua.

Kuadrillategi, Gazte Kluba, Amaraun ludoteka eta ikastetxeetako gazteek parte hartuko dute kalejira honetan, nahi duten herritar guztiarekin batera.

Erritmoa eta musika

Kuadrillategiko lagunak gai-

nera, Loidi-Barrenea, Tajamar biribilgunean eta Okendo plazako sarreran erritmoa ezarriko diote rezibatukadari esker.

Gainontzeko bidean, Ttirriki Ttarraka-ko trikitalariek jarriko diote doinua desfileari.

Hitzordua 16:45ean izango da puntual abiatu ahal izateko herriko kaleetan barrena desfile koloretsu eta alai.

Bi karroza

Iaz bezala, Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotxek Okendo plazarainoko ibilbidea karrozan egingo dute. Berrikuntza modura, aurten bi karroza izango dira.

Gainera, lau lagunek Olentzeroren etorrerako bereziki menditik jaitsitako galtzagorri bihurrien laguntza izango dute haurrak agurtu eta goxokiak jaurtitzeko. Hainbat animalia ere, hala nola arkumetxoak ikusi ahaliko dira.

Tailerrak

Honetaz gain, Amaraun Klubeko haurrek kriseiluak eta

2016 urterako amets koloretsuak eramango dituzte desfilean.

Bi elementu hauek egiteko gaur eta bihar, goizeko 11:00etatik 12:30era tailerrak izango dira Amaraun Ludotekan.

Gaur kriseiluak egingo dira eta bihar, berriz, 2016 urteko ametsak.

Antolatzaileek gogoratu dute, txikiak gaur linternak eraman behar dituztela eta biharko ametsak egiteko kartoi kutxa txiki batekin nahikoa dela.

Gainera, gaur kriseilurik egiteko aukera ez dutenek ibilbidea linternekin argitu ahal izango dutela ere adierazi dute.

Pertsonaia ugari

Kuadrillategiko lagunak, berriz, argi-zuziriak eramango dituzte desfilean.

Kalejiran hainbat pertsonaia mitologiko ere izango da. Akuilu-makuiludun sorginak eta Tartalo, Basajaun, Basandere, Mari Teilatuko eta lamiak ere ikusteko aukera izango da.




Olentzero, Mari Domingi eta laguntxoek emanaldia eskainiko dute Okendo plazan ostegun arratsaldean.



Gure kafeaz befitako kapsulak

Nespresso kafe-makinekin bateragarriak

Zorionak eta eguberri on!



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA





Olentzerok eta Xixukok herriko gaztetxoenen eskutitzak jasoko dituzte Okendon,, 18:15ean hasita.

Jalguneko lagunak ere izango dira desfilea koloretsu eta alai honetan.

Kalejirak hiru orduen laurden iraungo ditu eta aipatu legez, Okendora iristean Rezibatukadaren emanalditxoia izango da. Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotxek ordurako haur guztiek haien eskutitzak prest eta eskura izatea espero dute.

Emanaldia

Olentzeroren etorrera jaialdian, musika ez da faltako. Gabon kantak, bertsoak, erro-

meria...izango dira harrera beroa egiteko.

Alboka abesbatza izango da oholtza Olentzero Okendora iristerako. Hainbat eskal gabon abesti eskainiko ditu Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx oholtzara igo bitartean.

Hauek emanaldi txikia egingo dute eta ostean, bertso eskolako kideek Olentzerori bertsoak kantatuko dizkiote oholza txikitik.

Ondoren, Olentzero eta Xixukok eskutitzak jasoko dituzte 18:15etatik aurrera.

Bitartean jaiak ez du etenik izango. Ttiriki Ttarrako lagunak eskutik, gabon kanta gehiago entzun ahalko dira.

20:00ak aldera, Olentzerok agur esango die Okendo bildutako haurrei. Izan ere, gau nekeza izango baitu.

Mendirra bueltatuko da haur guztien eskutitz eta ilusioekin. Azken orduko opari aldaketak egin, afaldu, guztia zakueta antolatu eta bere astoaren laguntzaz etxe guztietan opariak banatuko ditu.

Eguraldi txarra egitekotan, jaialdia Loidi-Barren pilotale-

Kalejirari hasiera ematean suzuria botako da. Rezibatukadaren erritmora lehen pausoak emango dira. Olentzero, Mari Domingi, Porrotx eta Xixukok bi karroza izango dituzte.

kuan egingo litzatekeela jakitera eman dute antolatzaileek.

Gabon kantak

Hala ere, Gabon giroa goiz goizetik izango da gure herrian. Eskean ateratzen diren haur eta gazteez gain, hainbat elkarte eta talde ohi-turari jarraikiz, gabon bezperako erronda egingo dute herriko kaleak gabon doinuez betez.

Goizean, 10:00etatik aurrera, Antonio Blas plazatik irten eta auzoan, zein auzo inguruko baserrietan gabon kantak abestuko dituzte Zabalako lagunak.

Ordubete beranduago, 11:00etan, Okendo plazatik aterako dira Landaberri ikastolako ikasle eta gurasoak Olentzeroarekin kantuan. Jon Lasa eta hainbat trikiti eta pandero jole ere izango dituzte lagun.

Arratsaldean Alboka abesbatza ere Atsobakar zaharren

egoitzan hasi eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da kantuan. Herriko zahar egoitzako egoileentzat saio txoa eskainiko du abesbatzak hauei ere egun berezi hauek alaitzeko helburuarekin.

Bestalde, Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek baserri baserri egingo dute erronda.

Beraz Eguberrietako giroa herriko etxe, baserri eta txoko guztietara zabalduko da.

Entseguak

Erketz EDT eta Zabaleta auzoko lagunak ahotsak prestatzeko entseguak egingo dituzte bihar.

Zabaletako auzotarrek 19:30ean dute hitzordua Antonio Blas plazako lokalean. Erketz EDT-k, berriz, 20:00etan, Zumaburuko ikastolako lokalean.

Herriarrak gonbidatu nahi dituzte taldeekin batera Gabon bezperako erronda egitera.

Xixuko ikastetxeetan bisitan

Herriko txikiek Xixuko ikusteko aukera izan zuten lehengo astea, Olentzeroren laguntzaileak ikastetxeetara bisitak egin baitzituen.

Harrera beroa egin zioten etxeko txikiek. Negar malko batzuk entzun ziren arren, txikitxoek adi jarraitu zituzten Xixukoren azalpenak. Sasoetako LH1 eta LH2ko lagunak abesti eta dantzak ere prestatu zituzten eta Xixukok haiekin egin zuen dantza.

Landaberri eta Sasoetako ikastetxeetako HH3 eta LH2 mailetakako haurrek ahate bereziaren eskuetatik Olentzerok prestatutako eskutitzak jaso zituzten. Hauek trukean Olentzerori zuzendutako marrazkiak eman zituzten Xixukori.

Marrazki horiek guztiak Olentzeroren etorrera jaialdian izango dira ikusgai. Izan ere, ikazkinari eta bere lagunei ongi etorria egiteko dotore apainduko baita Okendo plaza.




Xixuko Landaberri-Garaikoetxea ikastolako zein Zumaburu-Sasoetako haur eta gaztetxoekin bildu zen.

Maitte Erkizia

Ile-apaindegia eta esteika zentrua

ENERITZ
estetika zerbitzuan.
Ongi etorri guztioi!!

Eguberri on!



Aspertzeko astirik ez Eguberrietan

Haur eta helduentzat hamaika ekintza izango dira Lasarte-Orian

Egunerokotik ihes egin eta gertukoekin une alaiak bizitzeko diren egun hauetan hainbat ekintza izango dira Lasarte-Orian. Gabonetako haur parkea, ur-festa, zinea, San Silvestre lasterketa, Errege Magoak... familian, lagunekin edo bakar-bakar, kultura eta kirol egitarau interesgarria dago herrian. Haur, zein helduei zuzendutako ekimenak izango dira, baina bereziki gaztetxoek dute gozatzeko aukera zabala. Berrikuntza batzuk ere izango dira aurten, I. San Silvestre lasterketa, esate baterako.

Gabonetarako egitarau oparoa antolatu du aurten ere udalak herriko hainbat elkarterekin batera. Eguberrietako Haur parkea, zinea, San Silvestre lasterketa... etxeko txikiak egun hauek ederki pasatzeko hamaika ekintza izango dituzte aukeran. Hala ere, helduentzako ekintzak ere izango dira.

Haur parkea

Igandean Eguberrietako Haur Parkeak bere ateak ireki zituen Michelingo kirol gunean. Abenduaren 31ra arte zabalik izango da Lasarte-Oriako haur eta gazteek ederki goza dezaten.

Parkearen ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da eta arratsalde, 17:00etatik 20:00etara. Abenduaren 24an goizez bakarrik egongo da irekita eta Eguberri egunean itxita egongo da.

Kirol guneako pilotalekuko aforoa 250 pertsonetara eta

karpa 100era mugatua dagoenez, goiz eta arratsaldeak ordu eta erdiko bi txandatan banatuko direla jakitera eman dute antolatzaileek.

Adin guztietarako guneak

Eguberrietako parke berezi honek hiru gune ezberdin ditu aurten.

Kirol guneko pilotalekua koloretako oihal eta moketez apaindu da, 1-12 urte tarteko gunea hartzeko.

Bertan ludoteka, puzgarriak (olagarroa, kirolak, zirkuitua, pista amerikarra, oihana...), adin ezberdinetarako 4 tailer eta Wii bideo-joko gune bat dago.

Kanpoko tenis pistan berriz, 300 m2ko karpa klimatizatua dago, 12 urtetik gorako neska-mutilei zuzendutako ekintzekin.

Giza-futbolina, zezen mekanikoa, Salto-salto puzgarria, bideo-jokoetarako gunea, DJ-arentzako tokia, 2 ping-pongekoko mahai, 2 futbo-



Michelingo Kirol gunean adin ezberdinetarako bi gune ditu Haur Parkeak. Oriako Bitarte tenis-pistan beste gune bat dago.

lin, eta 2 Air-Hockey daude gaztetxoek gozamenarako. Karpatik kanpo, gainera rokodromo, balantzak dabilzkan bizikletak eta beste puzgarri bat ere badaude.

Oria auzoan ere

lazko bideari jarraituta, kirol guneko mugak gainditu eta Eguberrietako parkeak bere lekua izango du herriko beste lekua batean ere, Oriako Bitarte tenis-pistan.

Honetan 225m2ko karpa klimatizatua jarri da. Bertan familian egiteko jokoak izango dira, hauek joko tradizio-

nal erraldoiak izango dira.

Ikuskizunak

Hau guztiaz gain, hainbat ikuskizun izango dira Eguberrietako Haur Parkeko agertokian.

Gaur, 'Amona Josepa' haurrentzako antzerkia izango da. Abenduaren 27an, igandean, 'Ines eta bere kontuak' ipuin-kontalari saioaz gozatu ahalgo dute etxeko txikiak eta 30ean, berriz, 'Pirata Garripata' haurrentzako antzerkiak. Emanaldi guztiak 19:00etan, izango dira

Urteari eta Eguberrietako

Haur Parkeari amaiera emateko, abenduaren 31n, jaialdi txikia izango da. Honetan, dantzaldiaz eta beste joko batzuek gozatu ahalgo dute haur eta gaztetxoek.

ASIDEL-entzat sarrera

Lasarte-Oriako Udalak herriko elkarteek Gabonetako parkeko sarrera eta taberna kudeatzeko deialdia egin zuten eta hirugarren urtez jarraian, Lasarte-Oriako Langabetuen plataforma izango da arduraduna.

Hitzarmenaren sinaketa ekitaldian Jesus Zaballos



Disfrutatatu gabonetaz!!

Riojanos

Erregetia



Afariak, bazkariak, pintxoak...

Uistin kalea 13 - Tel. 943 36 27 20 - Lasarte-Oria



Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Eguberri on!

Fernández

ehunak



Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

<p>* IBILGAILUAK</p> <p>MOTOZIKLETAK AUTOMOBILAK AUTOKARABANAK FURGONETAK KAMIOIAK...</p> <p>* MERKATARITZA</p>	<p>* BIZITZA ETA ERRETIROAK</p> <p>* OSASUNA</p> <p>* ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK</p>	<p>* ERANTZUKIZUN ZIBILA</p> <p>* ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK</p> <p>* INBERTSIOAK</p> <p>* PYMEAK...</p>
---	---	--

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 34 49 & FAXA: 943 37 24 13

Zorionak eta eguberri on!



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxes: 943 372413

Kirola eginez 2015 urteari amaiera emango diote herritar ugari, abenduaren 31ko arratsaldean, Lasarte-Oriako I. San Silvestre lasterketari esker

alkateak, ekimen hau herriko elkarteentzat positiboa dela azpimarratu zuen.

Sarrerari dagokionez, herritar guztien eskura egon dadin nahi du Udalak, horregatik helduek euro 1eko sarrera ordaindu beharko dute eta haurren kasuan doakoa izango da parkera sarzea.

Irteerak

Bestalde, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik, Gazte klubeko lagunak ere badute zer egin.

Gaur eta bihar, goizeko 11:00etatik aurrera, Esne Beltzaren 'Euskaraz bizi nahi dut' abestiaren flashmob grabaketa izango dute.

Bestetik, Barakaldoko BEC-eko Eguberrietako Haur Parke erraldoiera egingo dute txangoa abenduaren 28ean, astelehenean.

9:30ean abiatuko dira Zumaburuko geltokitik Barakaldora. Parkean dauden jolas eta atrakzioetaz gozatu ahalko dute gaztetxoek eta 18:30rako bueltan izango dira.

Ur-festa

Gaur bertan kiroldegiko igerilekura joaten diren etxeko txiki eta gaztetxoek ere ederki gozatzeko aukera izango

dute goizeko 10:00etatik 12:00etara.

2005-2011 urteen bitartean jaiotako haurrek parte hartuko ahalko dute ur-festan. Kiroldegiko arduradunek gogoratzen dute umeak bakarrik sartuko direla igerilekuan eta igeri egiten jakin behar dutela parte hartzaile guztiek.

Bazkideek doan parte hartu ahal izango dute eta ez bazkideek 3,7 euro ordaindu beharko dituzte.

Jaiotza lehiaketa

Hau guztiaz gain, Danok Kide elkarteak antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa izango da abenduaren 27an, igandean, 12:00etan elkartearen egoitzan.

Abenduaren 18 eta 19a izan ziren jaiotzak aurkezteko egunak.

Antolatzaileek gogoratu dutenez, lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak San Pedro elizan ikusgai izango dira eta irabazleak, berriz, Muebles Azpeitian.

Antzerkia eta zinema

Manuel Lekuona kultur etxean ere kultura eskaintza izango da.

Bihar, abenduaren 23a, 'Soulshine Voices' taldearen



Aurten lehengo, San Silvestre lasterketa antolatu da Lasarte-Orian. Irudian, lasterketako antolatzaile eta udal ordezkariak.

emanaldia izango da. Laukote frantses honek gospel kantuek eskainiko ditu, baita blues, jazz, funk edo soul kutsua duten doinuak ere. Sarrerak 5, 50 euro balio ditu.

Bestalde, haur, zein helduentzako zineak ere ez du kalerik egingo.

Etxeko txikienek abenduaren 27an, igandea, 'Pixels' animazioko filma izango dute ikusgai.

Urtarrilaren 3an, berriz, 'Hotel Transilvania 2' 3Dn gozatu ahalko dute.

Sarrerak abenduaren 27an 3,80 euro eta urtarrilaren 3an 4,80 euro balio dituzte.

Helduen zinema atalean, ospe handia izan zuen 'Ocho apellidos vascos'-en bigarren zatia, 'Ocho apellidos catalanes' eskainiko da.

Hiru egun, abenduaren

27a, 28a eta 29a, izango dituzte lasarteoriarrek honetaz gozatzeko eta gainera, egun bakoitzean bi sesio izango dira, bata 19:30ean eta bestea 22:00etan.

Film honetaz gain, urtarrilaren 3an, 'Sicario' filma ere izango da Manuel Lekuonako karteldegian.

Saio guztiek, 5,50 euro balio dituzte.

Urtea lasterka amaitu

Urtea kirola eginez amaituko du herritar ugari. abenduaren 31ean, hainbat herrietan San Silvestre lasterketa antolatzen da eta aurten lehenengo Lasarte-Orian ere izango da aukera.

Texas Lasartearrak eta herritako lasterkari talde batek antolatu du lasterketa. Lasarte-Oriako hainbat komertzio-

rekin eta Udalarekin elkarlana izan dute horretarako.

Baina lasterka egiteaz gain, Ipar Martxa edo Nordic Walking kirolean aritzen direnek ere tartea izango dute San Silvestre honetan.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da lasterketa. Baina ordu erdi lehenago aurkezpen ekitaldia egingo da, Okendo plazan.


Bertatik aterako dira parte hartzaile guztiak eta bertan helmugaratuko dira, 6,2 kilometroko ibilbidea egin ostean.

Helmugaratutakoan indarrak berri ahalko dituzte herritarrek. Hainbat edari eta jaki edukiko dituzte aukeran: ura, garagardoa, fruta, pastak... Ondoren hasiko da sari-banaketa ekitaldia.

KOOKAI  PART TWO ese 0 ese NAFNAF 

ALBA ARROPA DENDA

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!!




Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 95 08

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!!



Gabon eta Urte Zahar gauetan
GAU OSOA IREKITA!!

Eguberri eta Urte Berri egunetan
eguerdiko 12.00etatik aurrera IREKITA!!



Urtero legez, Ekialde Urruneko Magoek Ama Brigitarren komentuko jaiotzean opariak utzi eta komentuko mojei bisita egingo diete.

Herritarrek abenduaren 27a arte izango dute *kirolprobak.com* atarian izena emateko.

Interneten nabigatzen ari-zeko ohitura edo baliabiderik ez duten pertsonengan ere pentsatu dute antolatzaileek eta bi egunez Manuel Lekuona kultur etxean ere inskribatu ahaliko dira, baina oraindik zehazteke daude datak eta orduak.

Erregeen harrera

Urtarrilaren 5ean, berriz, Errege Magoak etorriko dira

Lasarte-Oriara. Eta erregeen etorrera antolatzen duen MEGABA elkarteak aurten hainbat berrikuntza izango direla aurreratu zuen Udalarekin hitzarmena sinatzean.

Kabalgata berriua ikusiko da Errege egun bezperan. Izan ere, karroza eta jantzi-tan hobekuntzak egingo baituzte MEGABAko lagunek.

Bestalde, Endika Amilibia zenaren omenezko izarra ere itxuraldatu egingo dutela aurreratu zuten.

Hori dena gutxi balitz, aurtengo jaiotzean benetako

idi bat ikusi ahaliko dute lasarte-oiratarrek.

Errege eta pajeekin batera APG lerroko patinaje taldea eta Ostargi konpartsako buruhandi eta erraldoiak aterako dira kabalgata girotuz.

Ekitaldia amaitu ostean, indarrak berriuko dituzte parte-hartzaileek, Jalgune elkar-teko gurasoek prestatuko dituzten ogitartekoak dastatuz.

Brigitarretan eskutitzak jaso

MEGABAko lagunek aurrera-

Errege Magoen desfileak itxura aldaketa bat izango du, karrozak eta jantzi berriak izango baitira. Jaiotzean benetazko idia ikusteko aukera ere izango da

tu dutenez, goizean, Atsotabar Zahar egoitzako lagunek Errege Magoen bisita izango dute.

Erregei eskutitza emateko, berriz, 16:00ak arte itxaron beharko dute haurrek. Harra Ama Brigitarren komentuko kaperan izango da.

Gurasoei gomendio bat egin diete antolakuntzatik, "ez dezatela azken momenturako utzi". Izan ere, komentuko ateak itxiko dituzte "Erregeak prestatu eta Oria auzorantz joateko".

Kabalgata

Era honetara, 18:00etan, Oriatik hasiko da kabalgata.

Ohi bezala erregeek goxokiak botako dituzte. Era berean, baseritarrak, erregeen laguntzaileak, zuzi eramaileak eta jalguneko lagunek parte hartuko dute desfilean.

Urtero bezala, geldialdia egingo dute Brigitarren

komentu aurreko jaiotzean eta ostean, bidearekin jarraituko dute, Hipodromo etorbidea, Iñigo de Loyola eta Geltoki kaletik Okendo plazara iritsiko dira su artifizio eta musika artean.

Ohi bezala Mercero plazan suziriak izango dira Errege Magoak plazara iristerakoan. Balkoitik eskutitzak irakurri eta goxokiak botako dira harrerari amaiera emateko.

Zuzi eramaileak

MEGABA elkarteak azpimarratu du zuzi eramaile bezala atera nahi dutenek gaur izena emateko aukera izango dutela.

Hitzordua Gaztelekuan izango da 18:30ean.

Bertan eskainiko zaie informazio guztia eta haur eta gaztetxoek gurasoak ere hurbiltzea nahi dute, kabalgataren nondik-norakoak ezagutzeko.

EGUBERRIKO EKINALDIA

ABENDUAREN 9tik ABENDUAREN 30era

LORTU GABONETAKO SORTA BAT ATERPEAKO SALTOKIETANI!

Zorionak eta urte berri on!!

<p>ANDATZA TABERNA Andatza Plaza, 5</p> <p>ABREU BAZARRA Geltoki Kalea, 2</p> <p>LIZARRI OPTIKA Hipodromo Etorbidea, 2</p> <p>DONNA BOUTIQUE Uistin Kalea, 1</p> <p>SUKO BURDINDEGIA Kale Nagusia, 35</p> <p>ALBA MODA Kale Nagusia, 65</p> <p>BIDEO LAGUNAK Donostia Etorbidea, 2</p> <p>ARKUPE TABERNA Largoenea Kalea, 1</p> <p>SANTANA INFORMATIKA Goikale, 2</p> <p>ZUMABURU LIBURU DENDA Kale Nagusia, 46</p> <p>ALCAR LEIHOAK Oriamendi Plaza, 2 baxua</p> <p>YOLANDA TABERNA Pintore Kalea, 1</p> <p>JOSEMA SARRAILA-DENDA Nagusia, 65</p>	<p>ORBELA EKODENDA Kale Nagusia, 2</p> <p>ITURBE ZAPATA DENDA Kale Nagusia, 34</p> <p>MAYA LENTZERIA Hipodromo Etorbidea, 8</p> <p>ALDA OSAGARRIAK Kale Nagusia,</p> <p>ISU LEIHOAK Kale Nagusia, 46</p> <p>ARREGI ELEKTRIZITATEA Kale Nagusia, 39</p> <p>NOGUES JANTZIGINTZA Kale Nagusia, 33</p> <p>ORMAZABAL LORADENDA Kale Nagusia, 33</p> <p>URRUZOLA MERTZERIA Kale Nagusia, 42</p> <p>OLMI MERTZERIA Kale Nagusia, 46</p> <p>IZARRA BITXITEGIA Juan XXIII Plaza, 12</p> <p>BUENETXEA KAFETEGIA Mutiozabal, 2</p> <p>AMALUR ZIBERLOKUTORIOA Nagusia, 2 baxua</p> <p>KATTAGORRI JOLAS Kale Nagusia, 12 (atzea), Okendo plaza</p>
---	---

Izaskun San Aniceto Bidaiaria

Hiru aste ahaztezin Wukron

Misio lanetan aritu zen uztailean Izaskun San Aniceto herritarra, Etiopia iparraldean

"Txiki-txikitatik" eduki du Izaskun San Aniceto herritarrak Afrikara joan, bertako egoera ezagutu eta ahal denean laguntzeko grina. Etiopiako Wukro hirira joateko aukeraren berri izan zuenean, ez zuen bi aldiz pentsatu. Hiru aste igaro zituen bertan, aurtengo udan; uztailaren 7tik 28ra egon zen han, Angel Olan hernaniarrak duela 20 urte hasitako misio lanaren nondik-norakoak ezagutzen eta parte hartzen. Esperientzia "%100ean gomendagarria" dela dio; TXINTXARRI aldizkariko irakurleekin partekatu du orriotan.

Iñigo GONZALEZ

Año gako futbol taldean aritzen da urtean zehar Izaskun San Aniceto herritarra. Iazko denboraldiko entrenamendu batean, Etiopiari buruz hizketan entzun zituen bi taldekide, Kattalin eta Olatz. Aurtengo udan Wukro hirira joateko zuten asmoaz ari ziren. Izaskunek "txiki-txikitatik" eduki du Afrikara joan, bertako egoera gertutik ezagutu eta ahal denean laguntzeko grina eta, horregatik, ez zuen bitan pentsatu eta abentura horretan murgiltzea erabaki zuen.

Hiru aste igaro zituen bertan Izaskunek, 21 egun denera, uztailaren 7tik 28ra arte. Angel Olan misiolari hernaniarrak duela 20 urtetik abiatutako egitasmoak ezagutu eta horietan parte hartu zuen herritarrak.

Lehen eskuko informazioa jaso zuen Izaskunek Wukrora abiatu aurretik. Kattalin taldekidearen osaba da Olan, eta hark lagundu zien bidaiaren tramiteak egiten, hark azaldu zien misiolari baten bizitza nolakoa zen bertan... "Aurretik ideia bat egiteko primeran etorri zitzaigun Angelekin harremanetan jartzea", gogoratzen du Izaskunek.

Dena den, ez zituen ordu gehiegi igaro Interneten arakatzeko eta Wukrori buruzko datuak biltzen: "Nolabait esa-

tearren, nahiago nuen bertara itsu joan, aurretik egindako ideia eta irudipenik gabe. Beti irudikatzen duzu bertan aurkitu dezakezuna, baina ariketa hori Mendebaldeko hedabideek proiektatzen duten iruditik abiatuta egiten dugu sarri. Espero nuenak eta han topatu nuenak ez dute zerikusirik izan, inondik ere; harrigarria izan da esperientzia".

Lehen gaueko bisita

Iritsi eta berehala, lehenengo gauean bizitu zuen Izaskunek egonaldia horren harrigarri bilakatu zuten egoeretako bat.

Olanek herriko familia bat bisitatzen du gauero. Hori gertutik ezagutu zezaten, ailegatu berriak etxe horietako batera eraman zituen, Izaskun barne. "Hamar metro koadroko etxetxo batean ama eta lau seme-alaba bizi ziren. Erabat txundituta geratu nintzen egin ziguten harrerarekin", oroitzen du. "Banan bana aurkeztu zituzten euren buruak; umek bina muxu eta eskua eman ziguten eta, gero, gurekin hitz egiten zuten. Berdin bukatzen zuten denek: 'Nire etxea maite dut, ongi etorri bertara, maite zaitut'. Ikasita dute nola jokatu bisitan etortzen direnen aurrean".

Bisita horretan abestu ere egin zuten, hango kantuek eta baita euskaldunak ere, Angelek urteotan erakutsitakoak, 'Xuabe-xuabe' eta Pintto-Pin-



Izaskunek aipatzen duenez, biztanle asko hamar metro koadro inguruko etxoletan bizi dira Wukron. Familiak sei-zortzi pertsonakoak izan ohi dira; "ia-ia batak bestearen gainean jarri behar izaten zuen". IZASKUN SAN ANICETO

to', esaterako. "Angelek familiekin duen harreman berezi eta gertukoak eta etxe horretan egin ziguten harrera sutsu horrek benetan harritu ninduen", dio Izaskunek.

Eguneroko jarduna

Bisitak gauetan egiten zituzten. Eguzkia ezkutatu aurretik berri, beste hamaika gauza.

Angel eta taldearekin batera misio lanetan aritzen zirenak St Mary's College izeneko zentroan bizi ziren. "Goizean goiz" jaiki eta zazpi terdian gosaltzen zuten, denek elkarrekin. Horren ostean, baratzetara joaten ziren lanera; bi orduz aritzen ziren bertan gutxi gorabehera, belar txarrak kentzen eta soroak ureztatzen batez ere.

Horren ostean, 11:00ak aldera, eskola-saioak egiten zituzten Wukroko haurrekin. Oinarrizko ingelesa irakasten zieten, jokoen bitartez nagusiki: "Metodo hori zen eragin-

korrena, bertako haurrek ez dituzte barneratuta hemengo ikasketa metodoak. Egiari zor, gure ingeles maila ez zen oso altua, baina haiei irakasteko adinakoa bai".

Goizean zehar lan eta lan aritu ostean, indarrak hartzen zituzten, bazkari-legea eginez. 12:30ean elkartzen ziren mahaiaren bueltan: "Otorduak egin aurretik otoi egiten genuen, ez erlijio edo jaingo zehatz bati; eskerrak ematen genituen Wukron geneukan guztiagatik". Afarian ere errepikatzen zuten errezua, arratsaldeko zazpiak aldera.

Hori baino lehen, bostetik zazpitarako bitartean, haurrak eskolara bueltatzen ziren berriro. Patioan jolasean aritzen ziren denak. Futboleko jokatzeko zuten, besteak beste: "Atzerritik gentozenek bertako biztanleen aurka jokatzeko gureen normalean. Sekulako lehia genuen elkarren artean, indartsu sartzen zuten hanka! Hori bai, ez ginen inoiz ere haserretzen. Jenio handikoak dira haurrak; elkarrekin haserretzen direnean sutu egiten dira 15-20 segundoz, baina segituan pasatzen zaie eta lagunak dira berriro".

Año gako taldean aritzen da futboleko Izaskun; entrenamendu batean jakin zuen bi taldekidek Wukrora joateko asmoa zutela, eta bitan pentsatu gabe animatu zen abentura horretara



2016 zoriontsua opa dizuegu.
Eguberri on!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

Carrefour
express



Lehenengo egunetik harreman bikaina egin zuen Izaskunek Wukroko herritarrekin.

IZASKUN SAN ANICETO

Wukrotarren izaera eta kanpotarreko jarrera

“Pozik daudenean azaleratu egiten dute, haserre daudenean ere bai; egia daramate beti aurretik eta oso argi hitz egiten dute, barruan ez dute ezer gorde eta ezkututzen”. Modu horretan deskribatzen du Izaskunek Wukroko biztanleen izaera. “Mendebaldean bizi garenok asko dugu ikasteko haiengandik; inteligentzia emozionala askoz ere garatuagoa dute haiek, euren arteko erlazioak askoz ere irekiago eta garbiagoak direla iruditzen zait”.
 Endekapenezko gaixotasun kronikoak zituzten bi wukrotarren adibidea ekartzen du gogora herritarrek: “Etxetik ezin zuten mugitu baina eguneko hogeitalau ordutako bakar batean ere ez zeuden bakarrik. Bete-beteta zegoen beti euren etxea, pertsonak sartu eta irten egiten ziren etengabe handik. Elkarrekin egon nahi zutelako biltzen dira han; gure gizartean inte-

res pertsonalak presenteago daudela esango nuke. Mentalitatea desberdina da oso”.

Wukrotarrek hitz espezifiko bat erabiltzen dute kanpotarrei buruz aritzean: ‘Farenji’ (tigrina hizkuntzan, ‘atzerritarra’). “Iritsi ginen egunean, kalera irtetean, arretaz begiratzeko gintuzten bertako biztanleek: berria zara han, kolore desberdineko azala daukazu... Inpresio pixka bat eman zigun, egia esan. Berehala gerturatu dira umeak zuregan, ‘farenji, farenji!’ oihukatuz. Izena galdetzen dizute, besarkatzen zaituzte, gainera igotzen dira... Helduak apur bat mesfidatiagoak dira hasieran, baina euren etxeetara joaten zarenean abegiz hartzen zaituzte”, azpimarratzen du Izaskunek.

“Pertsona zuriak Angelekin lotzen dituzte segituan; errespetu eta estimu handiz jokatzen zuten gurekin, jainko bat bezalakoa da Angel beraientzat, urteotan egin duen guztiagatik”, aipatzen du.

‘Abba Malaku’

Angel Olan hernaniarrak 76 urte ditu eta jada 40 daramatza Afrikan, misio lanetan. 20 igaro zituen Tanzanian; beste hainbeste daramatza Wukron.

“Kalkulazina da Angelek eta enparauek bertan egindako lana. Errespetu ikaragarria dut harekiko, sekulakoa izan da niretzat horrelako pertsona bat ezagutzea”, onartzen du Izaskunek. “40 urte daramatza ematen, behin eta berriro, truekan ezer ez jasotzeko asmorik gabe. Miresgarria da”.

‘Abba Malaku’ izenez ezagutzen dute Olanen Wukron. ‘Malaku’ hitzak ‘nire aingerua’ esan nahi du. Izenari ohore egiten dio misiolariak, Izaskunek dioenez: “Nekazina dela dirudi, denetik egiten du: goizetan meza ematen du, nekazaritzan aritzen da, hurrekin jolasten du, familiarak bisitatzen ditu gauetan, martxan dituen proiektuetan lan egiten du buru-belarri...”.

Hurrekiko duen harreman nabarmentzen du: “Gertu-

koa da oso hurrekin, baina horiek errespetu handia diote aldi berean. Erreferente bat da haientzat, hango haur gehienek ez baitaukate aitarik; rol hori betetzen du Angelek”, dio Izaskunek.

“Angel etorri zenetik asko aldatu da Wukro. Hainbat egitasmo jarri ditu martxan: baratztea, eskola, ura kudeatzekoa, errepideen eraikuntza. Lanbidea eman die herritar askori, haurren irakasle ere bada... Ikaragarria da”, nabarmentzen du.

Wukroko egoera nabarmen hobetu den arren, horrek ez du esan nahi bertako arazo denak amaitu direnik, herritarrek aipatzen duenez: “Angelek behin eta berriro esaten zigun moduan, burutu diren bezainbeste gauza geratzen dira oraindik egiteke”.

Arazo nagusiak

HIESa, tuberkulosia, lehorreak eta gosea izendatu ditu herritarrek Wukro astintzen dituzten arazoez galdetzerik.

“Hirian egindako misio lanak direla-eta, gosez ez da jenderik hiltzen Wukron. Jateko adina badute, ez soberan, baina bizitzeko adina bai. HIESaren heriotza-tasa ere asko jaitsi da, preserbatiboak doan ematen dira biztanleen artean; horrek lagundu du. Hori bai, laguntza oso beharrezkoa da han oraindik; hobe zeko gauza asko daude”, oharatzen du herritarrek.

Adibidez, lehorreek eragiten dituzten arazoak. Uztailan egon zen Izaskun bertan eta, haren harriurarako, euri dezente egin zuen tarte horretan. “Uztaila eta abuztua hilabete euritsuak dira Wukron; orduan jausitako ur-kopurua ere egin behar diote aurre urte osoari ia”.

Urteak daramatza Angel Olanen bertan. Hark egin-

dako aurreikuspenen arabera, tarte horretan egindako euria “ez zen nahikoa”, Izaskunek berak dioenez: “Gure ustetan ur dezente jausten zen zerutik baina Angel ez zegoen pozik, zioen apenas sortzen zela putzurik lurrean, eta arazoak edukiko zituztela hurrengo hilabeteetan”.

Abba Malakuren aurreikuspena bete egin zen; Etiopia iparraldeko Tigray izeneko eskualdetik hilabeteotan etorri diren albisteen arabera, arazo asko eragin ditu lehorreak hiri horretan. Biztanleen %90a nekazaritzatik bizi dela kontutan hartuta, zer esanik ez. Argi asko definitzen du herritarrek lehorre-egoerak dakarrena: “Ur eskasiak gosea esan nahi du Wukron”.

Izaskunek azaldutakoaren arabera, gosearen arazoa handitzen zihotan hiritik aldentu eta inguruko herrietara joan ahala: “Tarteka Wukrotik kanpoko txangoak antolatzen genituen, alboko herrietara; gose-zantzuak agerikoagoak ziren, sabela puztuta zeukatzen ume askok esaterako. Hori bai, apenas jatekorik ez bazuten ere, zeukatena albokoekin partekatzen zuten”.

Bidaiatxo horietako batean gertatutakoarekin ilustratu du ideia hori: “Txangoei ekin aurretik, fruta eta beste zenbait jaki erosten genituen, bidean jateko. Bidaiatzen ari ginen bitartean ordea, topatzen genituen hurrekin partekatzen genituen. Gogoan dut platano bat eman geniola haur talde bati; hartu zuenak, gose asko eduki arren, gairontzekoekin banatu zuen; denek jan zuten zaitxo bat”.

Mendebaldeko herrialdeetako mentalitatea ez da berdina herritarren iritziz. “Gure zilborrari begiratzen diogu gehienetan, daukaguna partekatu eta ondoan daukaguna

Wukroko hamar biztanletik bederatzi nekazaritzatik bizi da; lehorre-garaia dute han orain, uztaila eta abuztuan zehar nahikoa euri egin ez duelako

Josue Igeltseritza

Fatxaden estaldurak
 Estalkien berriztatzeak
 Barruko berrikuntzak
 Gremioen koordinaketa

Eguberri on!

Atallu pol. atallu, 28
 USURBIL

606 37 21 05

josueigeltseritza@euskalnet.net

COPILASARTE

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!!

ESTANPAZIOAK
FAX-ZERBITZUA
FOTOKOPIAK

AZALEZTATZEAK
PLASTIFIKAZIOAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
 Faxes: 943 366931 • Lasarte-Oria

Ortodoxoa, musulmana eta katolikoa. Erljio horiek dira jarraitzaile gehien dituztenak Wukron; ez dute inolako liskarrik haien artean

apur bat zoriontsuago egin ordez. Gauza asko ez dauzkat Wukrokoek, baina irribarra ez dute sekula galtzen”.

Aurrez aipatutako bidaia-txo horietan, 6-7 urteko umeak ikusten zituzten askotan abeltzain lanak egiten. “Bakoitzak hiru abere gobernatzen zituen gutxienez: idiak, ardiak, etab. Hemen pentsaezina litzateke horrelakorik egitea”.

Kultura berri bat

Orain arte aipatutakoez gain, beste hainbat gauza ‘pentsaezin’ topatu zituen Izaskunek Wukron, bertara iritsi aurretik imajinatuko ez zituenak.

Esaterako, justizia egiteko duten modua. Hirian gertatutako istripu bat erabiltzen du adibide gisara. “Kamioi batek eta auto batek istripua izan zuten, eta kotxeke gidaria hil egin zen. Horrelako kasuetan modu honetara jokatzeko dute: Kamioilaria espetxera eraman zuten, hura izan zelako istri-

puaren erruduna. Ondoren bi gidarien familiak elkartu egiten dira eta haien artean erabakitzen dute justizia nola egin. Hildakoak familia baldin badu eta errudunak ez, azken hau egiten da zendutakoaren emazte eta seme-alaben kargu espetxetik irteetan”.

Herritarrak esaten duenez, “bi astetan” gauzatzen dute prozesu hori guztia: “Ondoren, ez dago bi aldeen arteko ezinikusi edo gorrotorik. Aste-bete irauten du doluak, barnean daramaten min guztia orduan kanporatzen dute, eta bizitzak aurrera jarraitzen du horren ostean”.

Politikari dagokionean, ez dago hemengo tankerako alderdi politikorik, herritarren ordezkari bat baizik. 110 pertsona inguruk osatzen dute talde hori. “Herritarrek aukeratzen dituzte ordezkariak; irizpide gisara errespetua erabiltzen dute, haiek gehien errespetatzen dituzten pertsonak proposatzen dituzte”.

Ortodoxoa, musulmana eta katolikoa. Erljio horiek dira Wukron jarraitzaile gehien dituztenak, lehenak bereziki. “Funtsezkoa da haientzat erlijioa, baina liskarrik ez dute beraien artean, errespetu handia dute alor horrekiko ere”.

Egutegia eta orduak neurtzeko sistema ere desberdinak dira, Izaskunek esplikatzen duenez: “Hamahiru hilabete dituzte haiek denera. Orduen sistemara egokitzea kosta egin zitzaigun. Eguzkia ateratzen den momentutik hasten da martxan erlojua; ‘0 ordua’ da hori haientzat, gurean goizeko seiak direnean gutxi gorabehera”.

Herritarrak espero ez zuen beste gauza bat honakoa izan zen: Wukroren erliebe menditsua. “Egia esan behar badut, lautada lehorrak espero nituen nik eta mendiak topatu nituen han. Itsas-mailaren gainetik ia 2.000 metroa kokatuta dago Wukro; lanak izan genituen altitude horretara egokitzen, ariketa fisiko apur bat egitearekin asko nekatzen ginen: baratzearen alde batetik bestera joaten, umeekin futboleko jokatzeko...”.

Tigray estatuaren ekialdean dago kokatua Wukro. Denera 80 hizkuntza desberdin hitz egiten dira estatuan. Hirian,

zehazki, tigrina izenekoa mintzatzen dute bertakoek. “Oso zaila egiten zitzaigun hizkuntza hori ikastea. Haurrek irakatsi ziguten zerotik hamarrera artean zenbatzen eta oinarriko hitz batzuk ere bai, ‘agur’ eta ‘zer moduz zaude’ bezalakoak. Komeriak genituen hitz horiek esateko; barre egiten ziguten haurrek, asko eskertzen zuten egindako ahalegina”. Euskal Herritik joandako bidaiariak ere saiatu ziren wukrotarrei euskaraz irakasten, baina haientzat ere ez zen erraza izaten, Izaskunek zehazten duenez.

Zaila izanagatik, pertsonaren batek Wukron tigrina ikasiko balu, apunte eta abarren aurrean ez litzateke lokartuko, kafea Etiopiako gastronomiako oinarrietako bat baita. Hutsa hartzen dute edari hori, esnerik gabe. Bisitariak datozenean edo etxeok elkar-tzean, erritual berezi bat egin eta hiruna kafe edaten ditu bakoitzak. Plater tipikoena ‘wot’ izenekoa da. Haragi edo barazki erregosia zerbitzatzen dute ‘injera’ izeneko ogiaren gainean; eskuekin jaten dute nahasketa, pixkanaka. “Dastatu genuen ogi hori; nutritiboki oso ona izan arren, baina ez zitzaidan gehiegi gustatu egia esan, saltsa min batekin hornitzen zuten. Negar malkoak irten zitzaizkidan koilarakada soil batekin!”, oroitzen du Izaskunek, irribarretsu.

St Mary’s College zentroko dieta arrozak, pastak eta entsaladak osatzen zuten, Izaskunek azaldu lez. “Jateko dena oso goxoa zegoen, sukaldariak artista hutsak ziren. Haragirik ez genuen jaten apenas, abereak lanerako dituzte han, ez jateko. Eguneroko jardunera-ko zaharregiak zirenean hil eta jaten dituzte animaliak”.

Mendebaldeko gizarteekin alor askotan ez du zerikusirik Wukroko kulturak, baina zenbait ohitura ari dira hartzen, eta ez bereziki onenak, Izaskunen hitzetan. “Biztanleen %70ak dauka han sakeleko telefono bat. Atsekabetu egin ninduen horrek apur bat, iruditzen baitzait gure gizarteak daukan ezaugarri txarre-

tako bat dela; mugikorrari so pasatzen dugu denbora asko. Wi-Fi konexioa ere doakoa da tabernetan, eskumuturreko erloju handiak dituzte zenbait-tek, arropa eleganteak ere bai... Beste zenbait behar oinarrikoagoak dira”.

Esperientzia gomendagarria

Izaskunen esanetan, esperientzia “%100ean gomendagarria” da: “Kultura desberdin bat ezagutu dut, begiak ireki ere bai, gertutik ezagutu dut nolakoa den egoera Afrikako zona jakin batean. Batez ere, ikusi dut guk baino laguntza dezente gehiago behar duen jendea dagoela munduan”.

Ingurukoekin partekatzen ari da uztailan zehar bizitako esperientzia eta bat baino gehiagori asko interesatu zaiola dio herritarrak. Adibidez, amari.

“Dena den, ez da beharrezkoa Wukrona bertara joatea laguntza emateko, azken finean edonork ezin baitieziaieke bidaiaren gastuei aurre egin gaur egun. Laguntza da kontua, bakoitzak ahal duen neurrian. Krisi ekonomikoaren eraginez erakundeak diru laguntzak murriztu egin dira, beste diru-iturri batzuk ditu orain Angelen egitasmoak. Esperientzia gertutik bizitu duen jendea, Euskal Herrian antolatzen diren ekimen desberdinak... Pertsona batek behar bada 10 euroko laguntza baino gehiago ezin dezake eman, baina Angelek eta enparauek berdin-berdin estimatuko dute, laguntza baita kontua”, azpimarratzen du Izaskunek.

Azken egunean, Lasarte-Oriara itzuli aurretik, hara eramandako arropa asko eta zapatila pare ia denak utzi zituen Izaskunek Wukron. “Pentsatzen hasi eta konturatu nintzen nik sei hilabetetan hondatu nitzakeen oinetakoe-kin bost urterako badutela haiek”, gogoratzen du.

“Arestian esan bezala, laguntza da kontua, garrantzitsua ez da kantitatea; inor ez da irribarre bat ez oparitzeko bezain txiroa” esanez amaitu du elkarrizketa Izaskunek, irribarretsu.



Wukroko haur bat, poltsa antzeko bat eskuan duela.

IZASKUN SAN ANICETO

AUKERA PAREGABEA!!

Bideo Lagunak

Etxekotresna elektrikoetan adituak

299€

ROOBYA

xurgagailua modelo 621

299€

BEKO

garbigailua 6 Kg. 1.000 Rev.

299€

BALAY

garbigailua 7 Kg. 1.000 Rev.

32" PANASONIC

Teke

Bideo Lagunak

Etxekotresna elektrikoetan adituak

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE

TIN: 0% TAE: 0%

Eguberri eta urte berri on!

Eva Crespo Kulturista eta entrenatzaile pertsonala

Kulturismoa bizimodu

Espainiako txapelketa irabazi du Eva Crespo, hamar urtez konpetitu gabe egon ostean

Gorputza landu eta zaintzea gero eta ohikoagoa bilakatzen ari da gaur egungo gizartean. Askorentzat zaletasun edo 'hobby' bat gehiago den hori bizitzeko modu bat da beste hainbatentzat. Eva Crespo herritarrarentzat, adibidez. Espainiako txapelketa irabazi du aurten, zortzi urte konpetitu gabe egon ostean. Alberto Gonzalez senarrarekin gimnasioan egindako lanak eman ditu fruituak. "Jendeak pentsa dezakeenaren kontra, entrenatzeak dauka garrantzia gutxien behar bada kulturismoan", dio Evak. Hortxe zaletasun eta bizimodu baten arteko desberdintasuna.

Iñigo GONZALEZ

Niretzako entrenatzen dut, benetan gustuko dudalako kirol hau. Ez dut egiten arrazoi estetikoengatik, kaletik joan eta giharrak erakusteko, jendeak ni begiratzeko. Konpetidore bat naiz, oholta gainean ematen dut nire onena, bertan erakusten dut erakutsi beharrekoa". Kulturismoa du bizimodu Eva Crespo herritarrak.

Aurten ekin dio konpetitzeari berriro ere, eta ez zaio batere gaizki joan: Espainiako txapelketa irabazi du, hamar urtez lehiatu gabe egon ondok. 2015ean egindako kirol merituegatik bi sari jaso zituen pasa den asteburuan: IFBB Euskadi federazioarena batetik eta Lasarte-Oriako Udalarena bestetik.

Espainiako txapelketa irabazi du berriro, hamar urtez bertan konpetitu gabe egon ostean. Zer esanahi dauka lortu duzunak zuretzat?

Ez nuen inondik espero berriro Espainiako txapelketa irabaztea, egia esan. Egindako lan gogorraren saria izan da. Ilusio ikaragarria egin dit.

Urte asko pasa ditut oholzetatik at. Nire buruari erakutsi diot, horrenbeste denbora igaro eta gero, helburu jakin bat bete nahi duenak lortu dezakeela, baldin eta benetan hori nahi badu.

Zerk piztu dizu berriro ere lehiatzearen harra?

Lehen aipatu bezala, denbora asko igaro dut konpetitu gabe. Tarte horretan ama ere izan naiz. Jakina, hasierako urte horiek alabari eskaini dizkiot; uste nuen konpetitzearen aroa erabat itxi nuela.

Garai horretan Castellonen bizi ginen. Hona itzultzean, gimnasio batean hasi nintzen lanean, eta orduan piztu zitzaidan berriro entrenatu eta konpetitzeko grina. Apurka-apurka ekin nien lan saioei berriro, dinamika horri ekin eta hemen nago orain.

Espainiako txapelketa jokatuko baina 11 egun lehenago egin zenuen 'debuta'.

Maiatzean erabaki nuen konpetitzera bueltatuko nintzela. Urriean Castroko Openean hartu nuen parte. Alberto senarra da nire prestatzailea, eta bioi gustatzen zitzaigun moduan joan ginen bertara: 'lehor eta gogor'. Bigarren geratu nintzen bertan.

Proba amaitzean, epaileek beraiek esan ziguten nire giharrak apur bat suabeago aurkeztu behar nituela, ez horren definituta. Entrenamendu plan berezi bat prestatu zidan senarrak helburu hori lortzeko, eta horrela joan nintzen konpetitzera.

Hamar urteren buruan, titulu berri bat gehitu duzu



Espainiako txapelketa irabazi du Eva Crespo herritarrak (bikini gorridun emakumea, irudiaren erdian, urrezko domina soinean duela), hamar urte konpetitu gabe igaro ostean. ALBERTO GONZALEZ

palmaresera. Zure ibilbidea bezain zabala da ia.

Espainiako lau txapelketa irabazi ditut, Euskadiko hainbat ere bai, 2003an NABBA Kulturista Amateurren Elkarte Nazionalak Miss Universo saria eman zidan, urte horretako munduko txapelketan bosgarren postuan geratu nintzen... Ezin naiz kexatu.

Hori bai, palmares zabala edukita ere, oso-oso zaila da kulturista izatetik bizitzea. Nazio mailan zer esanik ez. Kirol minoritario bat da, masa eta diru gutxi mugitzen ditu; Espainiako txapelketa irabazteagatik sos bakar bat ere ez didate eman. Konpetitza garestia da oso, bikiniak, takoiak eta osagarri denak zure poltsikotik ordaindu behar izaten dituzu, gainontzeko gastuak ere bai askotan.

Nire kurrikulumarekin, AEBtan bai izan zaitezkeela profesionala. Aukera gehiago daude han, baina bidaiaz

gain, hasieran bidea ireki behar duzu, zure izena zabaldu... Aipatutako guztia balantza batean jarri eta gero, beti atera izan dudana ondorioa izan da ez didala merezi horrek denak profesionala izaten saiatzearen.

Profesionala ez bazara ere, haiek bezala zaintzen zara.

Kulturismoan garrantziaren %70a, gehiago ez esatearren, elikadurak dauka. Jaten duguna gara. Kirol oso bisuala da, epaileek gorputzak eta giharrak baloratzen dituzte. Ez da futboleko bezala adibidez,

golak sartuz gero eta errendimendu ona emanez gero ez da horrenbeste kontuan hartzen zertxobait gizenago zauden ala ez. Nik pisatu egiten dut egunero jaten dudana, otorduak oso markatuta ditut, jan behar dudana ere bai. Behar bezainbeste ordu lo egitea ere funtsezkoa da.

Senarrak eta biok urte osoan zehar egiten ditugu etxeko lanak, grasa portzentaje oso baxua mantentzen dugu beti. Modu horretara, konpetitzeko prestaketa egin behar duzunean askoz ere gutxiago kostatzen zaizu

Maiatzean erabaki zuen Eva Crespok konpetitzera bueltatuko zela; urriean egin zuen 'debuta', Castroko Open izeneko proban. Bigarren postua eskuratu zuen bertan

Dastatu gure hanburgesak!



Julia Beltza
Rock & Feed

Pablo Mutiozabal 4,
Lasarte-Oria

LAGUNAK



Eguberri on!

Etxebizitzetako eta komertzioetako...

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA

LIBRERIA MAITE



Eguberri on!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791

taberna

elurtza

Eguberri on!



Entrenatzaile pertsonala da ofizioz Eva Crespo. Aholkularitza kabinete bat darama senarrarekin batera; 30 bat bezero dituzte gaur egun

dinamikan sartzea. Bi fase ditu denboraldiak: udaberritik uztailera artekoa batetik, eta irailetik azarora bitartekoa bestetik.

Jende askok pentsatzen duenaren kontra, entrenatzen pasatzen dituzun orduak izango dira seguru asko kulturista batek zaindu behar dituen aspektuen artean garrantzia gutxien dutenak.

Gertukoa duzu entrenatzaile; Alberto Gonzalez senarrak prestatzen zaitu.

Bai, hala da. Talde bikaina osatzen dugu. Bikotea baldin baduzu, funtsezkoa da hura ere mundu horretan sartuta egotea, kirol oso sakrifkatua baita. Zure bizitzeko era ulertu eta partekatzen ez badu, seguru asko hautsi egingo da erlazioa. 16 urte daramatzagu elkarrekin, batak bestea laguntzen.

39 urte dituzu eta 20 daramatzazu kulturismoaren

munduan murgilduta. Bizitza erdia baino gehiago.

Konpetitza proposatu zidaten lehenengo aldian ia ez nekien 'body fitness' delakoa zer zen ere.

Herriko boleibol taldean jokatzen nuen gaztetan; egun batzuetan alor fisikoa lantzen genuen, kiroldegiko gimnasioan. Garai horretan halterofilian aritzen ziren zenbait kirolari giharrak lantzen. Ikusmira sortu zitzaidan, horrela hasi nintzen ni ere pesak eta antzekoak altxatzen. Gustatu zitzaidan, gero eta gogorrago hasi nintzen entrenatzen eta gaur arte. Bestalde, genetikoki ere niretzako kirol aproposa dela uste dut, nire giharrak azkar garatzen baitira.

Gustatzen zaidalako entrenatzen dut, ilusioz egiten dut eta asko atsegin dut. Ez dugu gorputza lantzen gero giharrak kaletik erakusten joateko edo ispilu aurrean argazkiak ateratzeko. Bizi-estilo bat da, filosofia bat. Eliteko atletak

gara, profesionalak ez garen arren, izango bagina bezala zaintzen gara. Konpetidoreak gara, eszenatoki gainean erakusten dugu erakutsi beharrekoa. Zoritxarrez, estereotipoz jositako kirol bat da.

Zer zentzutan?

Alde batetik, arestian aipatutako kontzeptu hori. Jende askok uste du kulturista garela lausenguak jasotzea eta kaletik giharrak erakusten joatea gusztatzen zaigulako. Kirol hori egiten dugun guztiok sartzen gaituzte multzo berean eta ez da bidezkoa. Egia da gorputza zaintzea modan jarri dela gaur egun, belaunaldi gazteen artean batez ere. Ezin da orokortu noski, baina arrazoi estetikoengatik joaten dira asko gimnasia, sare sozialetan euren argazkiak erakusteko gero, eta gainontzekoek ikusteko zeinen gihartsu eta ongi dauden. Kulturismoa bizimodu erara ulertzen dugunok ihes egiten dugu estereotipo horretatik.

Bestalde, produktu kimikoen afera ere presente dago. Kritikatzea eta jakin gabe hitz egitea oso erraza da. Berriro ere, denok multzo berean sartzen gaituzte. Nik denera 20 urte daramatzat kirol diziplina horretan murgilduta, egune-

ro-egunero zaintzen eta dago-kidan egunetan entrenatzen. Baina beno, horrekin ere bizi beharra dago, zer egingo diogu ba.

Estereotipoak ere oso presente daude elikaduraren alorrean. Zaindu egiten naiz, bai, baina denetik jaten dut: pasta, arroza, barazkiak, arraina... Kontua da otorduak eta jakiak behar bezala orekatzea. Jende askok galdetu ohi dit, 'dietan zaude?'. Ni ez nago dietan, ez dut horrela jaten denbora tarte batez eta kito. Gure gizartean dietatzat hartzen dugu, baina horrela jan beharko genuke benetan osasuntsu egoteko. Eta are gehiago esango dizut.

Bota.

Orokorrean oso gaizki jaten dugu. 'Fast food' eta antzekoek kalte asko egiten dute. Mediterraneo dieta daukagu hemen eta ez dugu aplikatzen kasu askotan.

Ongi jatea ona da denerako: osasuntsu egoteko, azalerrako, bizi-kalitatea hobea eta luzea izan dadin... Horrek ez du esan nahi norberak bere kapritxoak hartu ezin dituenik, nik ere horrela egiten baitut. Gure alabaren kasuan ere berdin, batek baino gehiagok galdetu izan dit ea txokolata eta antzekoak ematen ote dizkiogun edo ez. Nola ez dizkiogu emango ba? Ume bat da, haur arrunt bat, gurasoak asko zaintzen badira ere ez da espezie arraroren bat edo horrelako zerbait.

Guk erakutsi nahi dioguna da egunero litxarreriak jatea kaltegarria dela, elikagai guztiak kontsumitu behar direla neurritz eta oreka mantenduz. Ez dugu kulturismoan sartuko guk kirol hori egiten dugulako, etorkizunean erabakiko du berak zer nahi duen.

Beste hainbat pertsonari ere ematen diozu aholku egunero, entrenatzaile pertsonala baitzara ofizioz.

Senarrak eta biok aholkularitza kabinete bat jarri genuen martxan duela urte batzuk, 'Norteam' izenekoa. Hainbat kirolari prestatzen ditugu bertan; horietako batzuek konpetitu egiten dute gero. Horiek

dira 'Norteam' taldea osatzen duten kirolariak.

Bestalde, baditugu baita ere beste hainbat bezero ez dutenak konpetitu nahi edo kulturismoan murgildu nahi; elikadura ohitura egokiak barneratu nahi dituzte eta forman egon, besterik gabe. Denera 30 bat ditugu.

Nutrizioaren kontzeptua ere gero eta hedatuago dago gizartean, ezta?

Bai, baina arretaz jokatu behar da horrekin. Gaur egun 'sasi-nutrizionista' asko dago, behar bezainbeste formatu gabe dieta pertsonalizatuak eta horrelakoak prestatzen dituztenak. Guk beti aholkatzen dugu begiratu eta informatzeko kontratatzen dituztenen titulazioari buruz.

Beste hainbat esparrutan gertatzen den bezala, poltsikoari begiratzen diogu askotan nutrizionista baten eskutan jarzterakoan. Garestiago kobratzen dutenek zerbaitengatik egingo dute seguru asko. Formatzen ordu asko igaro ditugu senarrak eta biok, badakigu zertaz ari garen. Orain merke ordaintzen duzuna garesti aterako zaizu etorkizunean, seguru asko.

Etorkizuna aipatu duzula baliatuz, zeintzuk dira zure asmoak 2016rako?

Konpetitzeari dagokionean, datorren urteko maiatzean Europa ekialdeko herriren batean jokatu den Europako txapelketa daukat buruan.

Nire ogibideari dagokionean, gaur egungo bezero kopurua mantentzea gustatuko litzaiguke eta, zergatik ez, ahal bada handitu ere bai. Entrenatzaile, atleta eta pertsona hobea izan nahi dut egunero, formatzen eta gauzak ikasten jarraitu.

Bestalde, ez nuke elkarriketa bukatu nahi nire ibilbidean zehar bidelagun izan ditudan pertsonari eskerrak eman gabe, Ana Apalategiri bereziki. Baita ere familiari, senarrari bereziki, emandako laguntza guztiagatik. Etorkizuna ilusio handiz ikusten dut, hurrengo denboraldiari ekiteko irrikitan nago.




Berriki beste sari pare bat gehitu dizkio Eva Crespok haren palmaresari. Horietako bat Lasarte-Oriako Udalaren eskutik jaso zuen, pasa den larunbatean, 2015ean egindako kirol merituengatik.



**PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRE
NAROA**

2016 ZORIONTSUA
OPA DIZUEGU.
URTE BERRI ON!



Kale Nagusia 39
Tel. 943 37 26 68 - Faxe: 943 37 07 37

Patxi Larrañaga harategia

“Lehen mailako produktuak eskura”

Aski ezaguna da Patxi Larrañaga harategia Lasarte-Oria eta Euskal Herrian. Euskal Herriko txistorra txapelketako finalista izan berri da eta beste 49 harategirekin batera koipe eta gatz gutxi erabiltzen duen zigilua lortu du. Larrañaga familiak, Patxi, Ana eta Naroak produktuen kalitatearen alde egiten dute.

Zer nolako produktuak saltzen dituzue?

Lehen mailako produktuak ditugu. Gauza bakoitza bere tokikoa: txekorra Baztangoa, zaharren haragia Galizia, arku-meak Gaztela, txerrikumea Segoviako, txerriak Teruelekoa eta txerri iberikoa Toledokoa. Kuriositate modura, beti erabili dugun Idiazabal gaztak Munduko txapeldun saria eraman du.

Zuek egindako produktuak ere kalitatea bermatzen duzue?

Lehengaiak kalitatezkoak dira.

Txistorrak egiteko esate baterako, Teruelgo txerriak erabiltzen ditugu, piperrautsa ere kalitatezkoa da. Hesteak ere, hori artisautza lana da. Foie-ak ere guk egiten ditugu.

OMSen azterketak eraginik izan al du salmentan?

Ez, jende askok daki kalitatezko produktuak eta haragia ditugula. Astero-astero edo egunero egiten ditugu. Guk egiten ditugun gauzei ez dizkiegu ez kontserbagaririk ez ezer botatzen. Esate baterako, txekor hamburgeresak ezin ditugu astero egin, gaiz-

ki jartzen baitira, egunero edo bi egunetan behin egiten ditugu.

Horregatik gainera, koipe eta gatz gutxi erabiltzen duten janari egileei zigilua eman berri digute. Supermerkatuetan aurkitu ditzakezun saltxitxetan ez dakit zenbat tona egiten dituzte, ez dakite noiz salduko diren, beraz denetarik sartzen dute.

Jende asko etorri zen. Supermerkatutan erostera ohitua zegoen jendea ere hurbildu zen egun horietan. Baina hori ere behi eroen antzera, egun batzuetako gauza da eta gero ahaztu egiten da. Ohitura bada-gu zaila da hori aldatzea.

Zein produktu saltzen duzue gehien?

Egun hauetan txistorra. Urtean zehar guk egiten ditugun saltxitxak eta hamburgeresak. Klase



ezberdinak egiten ditugu aukera asko dago.

Zein produktu erosten da gehien Eguberrietan?

San Tomas baino lehen txistorra eta Eguberrietan foie-a, guk egiten dugun micuita izaten da oso preziatua.

Gomendio bat Gabonei begira.

Oso ondo eta merke jan daiteke. Kazolakada bat eginda jende askori eman ahal diozu jaten. Hala ere, bakoitzak ikusi behar du. Normalean, azpizuna, txuleta, arkumea nahi du jendeak. Bakoitzak ohitura bat du egun hauetan eta noizbehinka norbaitek aldatzeko zerbait eskatzen digu. Horretarako, hegaziak ditugu: pintada, ahatea, fisaia, galeperra, kapoiak...

Balerdi Harategia

“Baserrietako produktuak ditugu”

Balerdi harategiak hiru establezimendu ditu Lasarte-Orian. Juan Bautista Balerdik zuzentzen ditu eta talde ederra du lanean. Kate honetako dendetan bertako baserrietako haragiak daude eskuragarri, baita haiek egindako produktuak ere. Guztiak kalitatezkoak.

Zer nolako produktuak saltzen dizue?

Haragia, txahala, behian haragia, oilaskoak eta txerriak.

Gauza batzuk guk egiten ditugu. Txistorra, txorizoa, saltxitxak, oilasko saltxitxak...

Hamburgerak mota ezberdinetakoak dira. Denetarik pixka bat dugu: oilasko hamburgerak, pikilloa dutenak, ondoekin, espinakekin eta gaztarekin.

Gurean inguruko produktuak ditugu, gauza bat edo beste nazionala da, Estatutik ekarria.

Kalitateari dagokionez, gu ez gaude, Euskal Okela edo horrelako taldeetan sartuak.

Baina guk produktu asko Euskal Okelakoak ditugu, baserrietan Euskal Okela duten txahalak edo animaliak hazten dituztelako baina guk ezin dugu hori jarri ez garela horren kide.

OMSen azterketak eraginik izan al du salmentan?

Hasieran herritarrek zerbait komentatu zuten, baina azkar desagertu da.

Badakigu gauza guztiak bezala gehiegi jateak kalte

egin dezakeela, ezin duzu egunero kilo bat haragi jan, kolesterola edo zerbait emango du. Ezin da egunero gehiegi jan.

Salmentan ez dugu nabaritu jaitzierarik horregatik.

Zein produktu saltzen duzue gehien?

Gehiena haragia saltzen dugu. Txekorra eta txahala erosten da eta behi haragia ere.

Zein produktu erosten da gehien Eguberrietan?

Eguberrietan azpizuna, arku-meak eta txerrikumea dira saldu ohi direnak.

Aurten salmenta ona aurreikusten dut.

Gainera, jendea aurrez erosten ari da. Azken astean, prezioak gero zeozer gora



gingo duela eta, orain ari dira erosten eta hori ona da ze ez daukazu azken momentuko lan golpe hori. Hori nabaritu dugu.

Zer gomendatuko zenuke gabonei begira?

Nik beti esaten diet gehiegi konplikatzen direla. Zerbait normala erostea gomendatzen diet.

Azpizunari dagokionez, ez

pentasa beste garai batekoa baino kalitate hobekoa denik. Zaila izaten da hainbeste azpizun aurkitzea, ez da erraza eta garestiagoa ere.

Nik txuleta edo zerbait arruntagoa eramateko esaten diet, oilaskoa edo. Izan ere, orain urtean zehar ere azpizuna eta gauza bereziak erosi baitaitezke. Baina data iristen da eta jendea urduri jartzen da zer jarri ez dakielako.

AIZPURUA *Eguberri on!*

Pinturak

- * Pintura plastikoak bereziki.
- * Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Zumaburuko industrialdea
Lasarte-Oria
Tel. 943 36 21 53

INPRENTA ERROTULUAK

Asko disfrutatu Eguberrietan!

BIZKER
IMPRESIÓN DIGITAL
Geltoki, 9 - LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362 061

ABREU

Eguberri on!

aterpea

Geltoki 2 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 365846

Aduriz

"Kalitate oneko produktuak ditugu"

Aduriz handizkaria da. Harategietara, saltoki handi eta ostalaritzara saltzen ditu bere produktuak eta ostalaritzan bi atal lantzen ditu, tabernak eta jatetxeak eta catering enpresak. Baina ekoizlea ere bada eta hainbat produktu egiten dituzte Lasarte-Oriako lantegian.

Zer nolako produktuak saltzen dizue?

Haragia saltzen dugu. Behia, txerria eta arkumea.

Haragiari dagokionez, txekorrarena zerbait Gipuzkoa-koa da, gehiena Estatukoa. Behia kanpotik etortzen da Europa erdialdetik, zerbait Galiziatik, baina gehiena Alemania, Danimarka eta Herbeheretatik dator.

Txerria gehiena Teruelekoa da. Batzuetan Kataluniakoa ere etortzen da baina oso gutxi.

Arkumea gehiena Nafarroa

aldetik dator, Bortziri eta Erribera aldetik. Elizondo, Doneztebe, Tafalla, Tuter...

Guk egindako produktuak ere baditugu. York urdaiazpikoa, pate, txorizoa, basurdeburua, odolkiak, saltxitxak, hanburesak, solomoa, mingaina, tripakiak, hirugiharra, txerri eskuak eta iaz indioilar zakotea egiten hasi ginen. Produktu horiek ere gure haragietatik egindakoak dira.

Osagarri modura, urdaiazpikoak eta txorizoa ditugu. Hauek Salamankatik datoz.

Kalitate onekoak dira eta

bere zertifikatuak dituzte.

Guk prestatutako gauzek ere kalitatezko produktuak dituzte oinarri.

Krisi ekonomikoa nabaritu al da?

Bai, jaitsiera nabaritu da. Produktu garestien kontsumoa jaitsi da, entrekota edo azpizuna eta merkeagoak igo dira, hegala eta horrelakoak.

Txerriaren kontsumoa gora doa, merkeagoa delako.

Guk egindako produktuetan, batez ere, txerri eskuak igo dira. Oilaskoa ere saltzen dugu, baina ostalaritzari zuzendutako zerbitzu modura eta hori ere igo da.

Zein produktu saltzen duzue gehien?

Behi-haragia eta batez ere,



txekorra da gehien saltzen dena hemen.

Zein produktu erosten da gehien Eguberrietan?

Azpizuna eta txuleta dira dudarik gabe egun haueta nproduktu erostenak. Arkumea ere asko. Hamabost egun hauetan zoramena izango da.

Gomendio bat Gabonei

begira.

Azpizuna. Oso erreza da, oso garbia eta dena aprobetxatzen duzu. Garestia dirudi, baina jende kopuruaren arabera moztu dezakezu eta listo. Soberan dagoena beste momentu baterako.

Entrekota ere berdin, baina garai hauetan zerbait bereziagoa bilatzen da eta azpizunarekin ongi geratuko zara.

Etxezarreta harategia

"Bertako produktuak eta kalitatekoak"

1963 urtetik, Lasarte-Oriako erdialdean lan eta lan dabil Etxezarreta familia. Lehenik Lierni ama eta gaur egun Xabier semea da harategia zuzentzen duena. Inguruko haragia eta kalitatezkoak saltzen dituzte. Aurrez prestatutako produktuen salmenta ere badute.

Zer nolako produktuak saltzen dizue?

Produktu ona. Haragiari dagokionez, bertako produktuak dira kalitatekoak, Eusko Labelekoak.

Guk aurrez prestatutako produktuak ere asko saltzen ditugu, eta lehengaiak freskoak dira, bertakoak. Esnea, esate baterako, Igeldokoa hartzen dugu. Produktuka hemen inguruan bilatzen ditugu. Txistorra guztia ere guk egiten dugu, hemengo txerriekin.

Produktu guztietan lehenik kalitateari begiratzen diogu.

OMSen azterketak eraginik izan al du salmentan?

Guri onerako egin digu. Jendeak momentu hauetan saltoki handiez ahaztu eta txikiak dator kalitatea bilatuz. Horregatik, guretzako hobe izan da.

Garai batean behi eroekin guk asko saldu genuen. Berdin gertatu zen, jendeak gauza merkeez mesfidati da eta gurera etortzen da. Boladak dira. Orduan "Gora behi eroak!" esan nuen eta orain ere horrelako zerbait izan da.

Haragia gehiago saltzen da, agian saltxitxak gutxiago

saltzen dira, hori jaitsi da. Baina gainontzean berdin. Saltxitxak erositakoak dira, baina hanburesak guk eguneroko egiten ditugu eta ez dugu salmentan jaitsierarik sumatu.

Krisi ekonomikoa nabaritu al da?

Jendeak ez du lehen bezala erosten. Baina guretzako ere ona izan da. Jendeak etxean gehiago prestatzen baitu janaria.

Zuk 200 euro badituzu, neskarekin zaude eta ez zoaz etxera arrautza frijitu batzuk jatera, plater konbinatu bat afaltzen duzu. Baina 40 euro badituzu, harategian solomo eta arrautza batzuk erosi eta etxean egiten dituzu.

Horregatik, nire ustez, guretzat hobera egin du, jen-



deak etxean gehiago egiten duelako.

Zein produktu saltzen duzue gehien?

Haragia eta guk prestatutako janaria izaten da gehien erosten dena.

Zein produktu erosten da gehien Eguberrietan?

Txuleta, azpizuna, arkumea eta kroketak. Egund bereziak

dira, janari bereziak egiten dira eta familia bakoitzak ere ohiturak baditu.

Gomendio bat Gabonei begira.

Ez da gauza askoren beharrik, familiarekin batu eta harmonia izatea da egun hauetan garrantzitsua. Bakoitzak kapritxoren bat ere izan dezake. Nik, pertsonalki, arkumea jango nuke.

tsst

Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta eroso

2014 **Bikam**
KALITATE ZURTIAN



Eguberri on!

Tel.: 943 361 740 • www.tsst.info

ABENDUAK 24
azken zerbitzuak
Donostia-Tolosa: 19.15
Donostia-Andoain: 20.15
Donostia-Lasarte: 20.30
Usurbil-Hernani: 20.15
Aginaga-Ospitaleak: 20.17

Tolosa-Donostia: 19.25
Andoain-Donostia: 19.45
Lasarte-Donostia: 20.00
Hernani-Usurbil: 19.45
Hernani-Lasarte: 20.45
Ospitaleak-Aginaga: 19.50
Ospitaleak-Lasarte: 20.50

ABENDUAK 25
Donostia-Tolosa Lasartetik
10.00-16.00: 60 minutuero
16.30-21.00: 30 minutuero
Azken zerbitzuak:
Donostia-Tolosa: 21.45
Donostia-Andoain: 22.15
Donostia-Lasarte: 22.45

Tolosa-Donostia Lasartetik
09.55-15.55: 60 minutuero
16.25-20.25: 30 minutuero
Azken zerbitzuak:
Tolosa-Donostia: 21.10/21.40
Tolosa-Lasarte: 21.55/22.40



Martin Berasategi Sukaldaria

"Sukaldean gozatu egiten dut"

Martin Berasategik 40 urte bete ditu sukaldari moduan

Sutegi artean igaro ditu bere bizitzako urte gehienak Martin Berasategik. 15 urterekin hasi zen Donostiako Alde Zaharreko 'Bodegon Alejandro' jatetxean lanean, eta 40 urte beranduago jo eta su jarraitzen du. Euskal sukaldarien abanguardian da zazpi Michelin Izarrek, horietako hiru Lasarte-Oriako gune nagusian. TXINTXARRIekin orain arteko ibilbidea gogoratu du, hasierako oroitzapenak partekatuz, baina baita hemendik aurrera egin beharreko urratsei buruz hausnartuz.

Martin VICIOSO

Lasarte-Oriarekin erlazio estua izan du betidanik Martin Berasateguik. 1993an ireki zuen bere lehenengo jatetxea, bere emazte Onekaren familiaren baserria eta lur eremuak baliatuz. Urteak joan eta urteak etorri, munduko onenen artean ipintzen dute jakitunek. Munduan herriaren izena zabaltzeaz ere arduratu da. Bartzelonan bi Michelin Izardun jatetxea du, 'Lasarte' izenekoa, eta 'Oria' irekiko du datorren urtean.

Urteurrena ospatzeko, besteak beste, upeltegi berria eraiki du bere jatetxe nagusian, 10.000 botila gordetzeko espazioa duena.

40 urte igaro dira familiako jatetxean hasi zinenetik, 15 urte soilik zenituela. Argi zenezukan sukaldari izan nahi zenuela?

Uste dut ez nukeela jakingo beste ezer egiten. Gainera, anai-arreben artean bakarra naiz odolean sukaldea eraman duena. Umetan sutegian denbora asko igarotzen nuen eta nahiko alameneko nintzen bertan. Dena den, ziur naiz nire bokazioa, gehienbat, 'Bodegón Alejandro' jatetxean igarotako momentuetan hazi nuela. Sukaldea gogoko nuen, argi dago, baina bode-

goiko giroa maite nuen. Batak eta besteak zerikusi handia dute, nire ustez. Ez dakit zer gertatuko zatekeen han jaio ez banintz. Zaila egiten zait horretan pentsatzea.

Nire gurasoak eta izeba Maria, jatetxea kudeatzen zutenak, sukaldari izateko asmoa apaltzen saiatu ziren. Haien esanetan, oso ofizio gogorra omen zen eta bizitzan gauza hobeak bilatu nitzakeen. Beste lanbide batek zoriontsuago egingo nindukeela uste zuten. Baina lau anai-arrebak oso burugorrrak gara jaiotzez, eta nik ez nuen etsi. Beraz, egun batean esan zidaten sukaldari izan nahi banuen, besteak bezala goizeko zortzitan esnatzeko eta atsedetik gabe gauerdira arte aritzeko. Eta hala izan da gaur arte.

40 urte hauetan, zein unek ase zaitu gehien sukaldari moduan?

Lasarte-Oriako Martin Berasateguik jatetxeari hirugarren Michelin Izarra eman zioten eguna. Sukaldariz jantzita, zerua hatz-mamiekin ukitzearen antzeko zirraraz piztu arazi zidan horrek. Gau horretan ezin nuen lorik egin. Goizeko ordu batean atera nintzen kalera, eta Donostiari bi buelta ia oso eman nizekion, bakardadean eta oso poliki. Profesionalki, nire ustez, ezin



Euskal sukaldari arrakastatsuenetakoa da Berasategi, zazpi Michelin Izarrek.

MARTIN BERASATEGI

da gehiago eskatu.

Oso gazte zinela ireki zenuen Lasarte-Oriako jatetxea. Zein izan da arrakastaren gakoa?

Atsedetik gabe lan egitea eta nire burua familia eta talde ezin hobe batekin inguratzea. Halaber, ez beldurrik ezta lotsa edota alferkeriarik ez izatea. Hori esango nuke izan dela gakoa.

Zergatik Lasarte-Oriari?

Nire emazte Oneka eta nire aita-amaginarrebak lasarteoriatarrak dira, eta haien baserria inguratzen zuten lurrak baliatu genituen gaur egun Martin Berasateguik jatetxea dena eraikitzeko.

Zure maisu izan dela aipatu duzu. Zenbateko garrantzia du Hilario Arbelaitzek zure ibilbidean?

Ofizio honetan dudak lagunik onena da Hilario. Bai bera baita bere anai-arreba eta

familia guztia niretzat erreferente izan dira. Hark ere famili jatetxean egiten zuen lan. Lekarozen bere anai Eusebio-ekin ikasten nuenean, Hilario sukaldean zen jadanik. Nire gurasoek Oiartzungo Zuberoara eramaten ninduten bazkaltzera eta gogoan dut jaki guztiak izugarri onak eta ezin hobeto eginak zirela. Hor ere hausnartu nuen sukaldari izateko aukera.

Aldi berean, sukaldari handien maisu izan zara. Zer suposatzen du zuretzat jakinduriaren transmisioak? Etorkizunari begira, oinarritz-

koa da dakiguna ondorengoe-kin partekatzea. Guk esperientzia dugu eta gazteek freskotasuna. Etorkizunak oraina baino hobea behar du izan edo, behintzat, berdina. Bestela, gure errua izango da. Adibide bera jartzen dut beti: gazteak belakiak bezalakoak dira, eta guk busti behar ditugu egunerok.

Upeltegi berria eraiki duzu Lasarte-Oriako jatetxean. Garrantzitsua da hobekuntzak egiten jarraitzea? Nire ustez, bai. Hobetzen jarraitu behar dugu, bertan gozo gelditu gabe. Halaber,

"Inprobisazioak, noizbehinka, ustekabe atseginak eragiten ditu, baina ez du lekuri goi mailako sukaldaritzan. Platerak aldeztu aurretik neurtu behar dira"



Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net



**Pastelak
Opilak
Pastak
Ogia
Bonboiak**
...

EGUBERRI JA! ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

DENA BERTAN EGINA

**turroiak
mazapanak
polboroiak
erregetako opila
bonboiak**
...



“Michelin Izarrak edozein sukaldariren ibilbidean sekulako bultzakada dira. Oso zaila da horiek lortu eta ondoren, mantentzea”

gastronomia ez da soilik sukaldaria, multzo osoa da. Jangela, zerbitzua, upeltegia... milaka ezaugarri bihurtu behar dute jateko esperientzia ahaztezin.

2016an 30 urte betetzen dira lehenengo Mitxelin Izarra lortu zenuenetik, Bodegón Alejandro jate-xean. Zer gogoratzen duzu garai hartaz?

Jatetxe hartako bizipenak datozkit burura. Esango nuke nire lehen oroitzen guztiak Bodegón Alejandro lotuak daudela. Nire guraso eta izebaz akordatu naiz, erabiltzen zituzten tresnak, kazola erraldoi horiek, haragi errearen soinua koipea galdu eta azala kurruskari zegoenean... Izugarria zen; 300 gradutako tenperaturara ailegatu ziren ikatzeko labeekin egiten genuen lan. Niretzat momentu guzti horiek magikoak dira. Nik ofizioa odolean daramadala uste dut, baina hor ernal-

du zen guztiz. Labean ama eta izebaren alboan egotea munduko ikuskizunik handiena zen niretzat. Lau anai-arrebetatik ni nintzen, une oro, haiek prestatutakoa dastatzeko irrikan zegoena; beti adi emandako lezioei. Estilo hura betirako gordeko eta eskertuko dut, baita ni sukaldari izan nahi nuela ulertu izana. Nahiz eta egia den hasieran errezelo handiak izan zituztela.

Gaur egun 7 izarrekin mantentzen zara. Kezkatzen zaitu sukaldariak Mitxelin Izarren arabera epaituak izatea?

Ez nau kezkatzen, egia esan. Ulertu egiten dut. Harrotasunez jasotzen dituz izarrak, baina baita izugarriko erantzukizunarekin. Egunerokotasunean motibatu egiten nauten sariak dira, nire estiloa hobetzen laguntzen bainaute, beti ere bikaintasun osoa bilatuz. Premisa horren arabera

egin dugu lan hasieratik. Horregatik, garaikur guztiak dira garrantzitsuak niretzat. Edozein sukaldariren ibilbidean bultzakada dira, eta are gehiago Michelin Izarren kasuan. Izan ere, profesionaltasunagatik eta zorrotasunagatik, gida honek eskaintzen dituen balorazioak, nire ustez, garrantzitsuenak dira. Asko kostatzen da lortu eta mantentzea; beraz, oso pozik nago.

Karibeko zure jatetxeen planteamendu eta kontzeptua hemengoekin alderatuz, alde handia dago?

Nire jatetxe guztiak planteamendu berean oinarritzen dira, gure estilo eta lorraztean. Joaten garen lekura goazela eramango dugu. Batez ere, antolakuntza eta funtzionamendu ereduari dagokionez. Nire ustez, Martin Berasategi estiloa oso definitu eta atzemangarria da. Hala ere, tokian tokiko berezitasunak errespetatzeko eta sustatzeko ahaleginak egiten ditugu.

Zure jatetxe sarea zabalitzen jarraitzeko asmoa duzu?

Momentuz, Bartzelonako ‘Oria’ jatetxearen irekiera eta

Karibeko beste birenak aurreikusita daude. Dena den, nahiago izaten dut nire proiektuei buruz hitz egin behin ondo bideratuta egotean.

Nolako izaten da plater berria sortzeko prozesua?

Idea izatetik abiatzen naiz beti. Ondoren, hura janzteko elementu eta ezaugarriak bilatzen ditut.

Helburua sormenezko plater bikainak egitea da, eta pausu guztiak ondo bideratu behar dira. Batzuetan, lortutakoa buruan zenuenarekin zerikusirik ez zuela konturatu zara. Ulertezina suertatu daiteke batzuetan emaitza lortzera ailegatu zarela ikustea, baina ahoan sartzean funtzionatu beharra dauka, bestela berriz hasi behar dut.

Plateraren sorkuntza, jarritako langaren arabera da, eta nik oso altu ipintzen dut. Nire sutegetan inprobisazioak ez du leku askorik, goi mailako sukaldaritzarekin bat ez baitator. Aldez aurretik neurtua eta erabakia egon behar da, nahiz eta egia den inprobisazioak, noizbehinka, ustekabe atseginak eragiten dituen. Ezusteko sorpresa apartak topatzen ditut noizean behin.

Telebistan sukaldaritzaren programa eta lehiaketa pila dago gaur egun. Zuen lan egiteko modua islatzen dute?

Ez dakit zer punturaino jakin dugun gure lan egiteko ohiturak eta metodoak islatzen. Azpimarratuko nuke jende askok sukaldaritzaren beldurra galdu diola.

Saiatzen gara pertsona orok jateari merezi duen garrantzia ematea, eta horretarako formula eta erraztasunak bilatzen ditugu. Helburua da edozeinek, bere etxean, errezeta bikainak egiteko gai izatea.

Gustuko duzu egunerokotasunean sukaldatzea?

Gustuko baino, maite dudala esango nuke. Gozatu egiten dut.

Nola ikusten duzu euskal sukaldaritzaren etorkizuna?

Nork ukatuko du gaur egungo euskal sukaldariren lidergoa? Sukaldaritzari dagokionez, unerik gozoenean gaude. Baina hasi besterik ez da egin hau. Mundua oso handia da, eta profesional bikainak daude han eta hemen. Buru belarri jarraitu behar dugu lanean, orain arte egin dugun modu berean.



Lasarte-Oriako III. Pintxo Ibilbideko aurkezpenaren izan zen Berasategui, eta pintxo onenari saria eman zion, Sancho tabernako txanpinoi barrubeteari hain zuzen ere.

EGUBERRIETARAKO MENUA

1. Ostra epelak pepino txingortuarekin
2. Bakailo kokotxak berberetxo eta txakolinarekin
3. Pitxoi errea bere saltsan

Martin Berasategi proposatutakoa. Errezetak kontsultatu ahal izateko, bilatu estekak txintxarri.eus webgunean.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

GABON HAUETAN, OPARITU EDERTASUNA!!

Maite estetika aretoan **opari txartela** prestatuko dizugu ezusteko polit bat eman diezaziozun nahi duzunari! Estetika zerbitzuak, tratamenduak... zatoz eta informa zaitez!

EGUBERRI ON!!



Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan. Etorri eta galdetu!

- Era ezberdinetako depilazioak
- Fotodepilazioa argi pultsatuekin
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Xabi eta Rober Gutierrez Ostadar SKTko futbolariak

Etxean elkartuta

Gutierrez anaiek talde berean jokatzeko dute, Ostadarren, hamar urte eta gero

Ibilbide luzea egin dute futbol zelaietan zehar Gutierrez anaiek, Xabik eta Roberrek. Erasoko jokalariek biak ala biak, urte mordo igaro dituzte etxetik kanpo, Espainiako bigarren 'B' mailan, hirugarrengan, Italiako beheko kategorietan edota Laosen. Aurten, 33 eta 35 urterekin, herriko taldean elkartu dira berriro ere. Ohorezko erregional mailako Ostadarren, alegia. Haiekin elkartu gara orain arteko bidearen nondik norakoei buruz hitz egiteko eta aurtengo erronkak ezagutzeko.

Martin VICIOSO

Edozein herritako plazetan baloiari ostikoka dabilta egunotan haurrak, Eguberrietako oporrak baliatuz. Batzuek edukiko dute profesionaletara ailegatzeko desioa, nahiz eta jakin gutxi batzuek besterik ez duten aukera. Reala eta izarren ligetara salto egitearekin amets egiten duten arren, ez da futbolarekin bizi ahal izateko existitzen den modu bakarra.

Gutierrez anaiek bide horri eutsi diote, eta futbol profesionalean ibilbide luzea egitea lortu dute, foko dizitira-suetatik kanpo.

Leku batetik bestera

Antzeko hasi zuten ibilbidea biek. Xabik Añorgan jokatu zuen jubencil maila bitartean, Ohorezko kategorian lehiazten zen garaian. Eibarko bigarren taldera egin zuen jauzia, eta lau urte igaro ondoren aldaketa beharrean ikusi zen. "Lehen taldetik ez ninduten deitzen eta nire ordezkariarekin hitz egin nuen. Hark bilatu zidan lekua Huescan". Roberrek, aldiz, Añorgatik eta Ostadarretik igaro ostean, Soriarako bidea hartu zuen; hirugarren mailako Norma San Leonardo taldera joan zen.

Behin etxetik aterata, alde batetik bestera ibili dira, motxila guztiz desegin gabe.

Norman hasi zen Rober maila profesionalean 21 urterekin. Zazpi urte eman zituen hirugarren mailako talde ezberdinetan. Menorkako Alaior taldean ibili zen ondoren, anaia Xabirekin batera denboraldi batez. 2006an 'etxera' bueltatu zen UPV/EHUn eta Azpeitiko Lagun Onak taldean arituz. Murtziako Pinatarren, Palentziako Aguilarren eta Cacereseko Montehermoson aritu zen ondoren. Azken honetan sartu ditu gol gehien, baina ezin izan zuen jaitsiera ekidin.

Italiako ligara joan zen 2010-2011 denboraldia jokatuzeko, Lucera Calcio taldera. Aspaldiko partidu kopuru gehiena jokatu zituen han, 30. Amaitzean, lehenengo saiakerak egin zituen Asian, Vietnamen lehenik, Sai Gon Xuanthan taldean, eta Tailandian ondoren, Bangkok Glass-en.

Espainiako Futbolarien Elkartek talderik gabeko jokalarientzat antolatzen zuten taldean aritu zen. Besteak beste, Moskuko CSK Aren aurka eta Alemaniako bigarren mailako Eintracht Braunschweig taldeen aurka aritu zen. Aukera horren ondoren etorri zen erronkarik gogorrena. Noja taldearekin bigarren 'B' mailan aritu zen urtebetez. Bukatzean, Hernanira egin zuen buelta.



Rober, behean lehena ezkerretik hasita eta Xabi goiko ilaran bigarrenea eskuinetik hasita, Ostadar taldean. Etxetik kanpo taldeak lortutako lehenengo garaipena izan zen ordukoa; 1-4 Getariako Ketaren kontra.

2014ean atera zitzaion Laos urrunera joateko aukera, eta Lanexang Intra taldeko kide izan zen urtebetez.

Xabik, bere aldetik, Huesca utzi eta Alaior taldean aritu zen bi urtetan, horietako bat, esan bezala, anaiarekin. Menorkako irla utzi gabe, Ciutadella-n igaro zuen beste denboraldi bat. Balear irla-ko abentura amaitu zuen 2006/2007 denboraldian Ibizako Santa Eulalian. Hirugarren mailan aritutako lau denboraldi horietako bakoitzean 10 gol baino gehiago sartu zituen aurrelariak.

Arandinan izan zen bi urtez, ondoren. Bigarrean taldeko kapitain izatera iritsi zen, 18 gol sartuta. Bigarren B mailarako igoera gertu izan zuten, baina ezin izan zuten lortu. Hurrengo urtean, Xabi maila horretako Jumilla taldeak sinatu zuen. Urtebete egin ostean, Gipuzkoara bueltatu zen. Zarautzetik,

Hernanitik eta Tolosatik pasatzen Ostadarrera bueltatu aurretik.

Teknika handiko jokalariek

"Rober jokalaria dotorea da, oso lasaia eta kalitate handikoa". Bere anaia hitzak dira. Batez ere, baloia eta jokoa zuzentzeko abilezia nabarmentzen ditu.

Xabi, aldiz, "goleatzaile petoa" dela aitortzen du Roberrek, nahiz eta gaur egun gaztetan baino atzerago jokatzen duen gehienetan. Punta erdi lanetan, "jokoa erraz ikusi ohi du eta, orokorrean,

denetarik egin dezake".

Arerio gogorrenak

Aurkariak ere mota guztietakoak izan dituzte. Xabiren ustez, Espainiako bigarren 'B' mailako laugarren multzoa da hark jokatu duen zailena. Cadiz, Murtzia, Jaen, Poli Ejido edota Sevillaren eta Betisen harrobiak izan zituen aurrez aurre, bera Murtziako Jumilla CFn aritzen zenean.

Espainiako Futbolarien Elkartek talderik gabeko profesionalentzat antolatzen dituen jardunaldi batzuetan topatu zuen sekulako maila

Hirugarren mailan aritu dira gehienbat. Euskal Herritik kanpora zale sutsuagoak izaten dituzte kategoria horietan, eliteko futbol talderik ez den lekuetan



SUGATE

SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Eguberri zoriontsua opa dizuegu!



Eguberri on!

Ezagutu itzazu gure eskeintzak, beste inora jo aurretik!

Pintore Kalea 5 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 14 71
www.sugate.net



12 ANOS DE EXPERIENCIA
 Beti lehenengo egunean bezala

INFORMATIKA

MARTINEZ MULTIMEDIA



Eguberri on!
 Ezagutu itzazu gure eskeintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behean - Tel/faxa: 943 36 05 91
 Lasarte-Oria

Duela 10 urte talde berean aritu ziren, Menorkako Alaior taldean. Aurten, berriro ere elkartu dira Ostadarren

Roberrek. "Ia errebotez bukatu nuen han. Lehenengo mailan aritutako jendea zen bertan, eta zenbait lagunarteko jokatu genituen. Besteak beste, Moskuko CSKAren aurka".

Egonkortasun bila

Euskal futbolariak Asiako ligetan aritzea pentsaezina zen duela hogeitun urte. Gaur egun, berriz, Europar askok jotzen dute hara. Roberrek Laosen aurkitu zuen lekua, Lanexang Intra taldean. "2008 eta 2009 urteetan Espainiako bigarren 'B' mailako eta hirugarren mailako soldatak mailako soldatak nabarmen jaitsi ziren, eta horregatik askok hautatu genuen bide hori" azaldu du lasarteoriatarrak.

Jokalari beteranoren hautua izan ohi da. Xabiren ustez, "Europako goi mailatera iristeko ametsa baztertzaren dute egonkortasuna aurkitze bidean". Izan ere, maila antzekoan edo baxuagoan

jokatuz diru gehiago irabazteko aukera dagoela azpimarratu dute. Gainera, ordainketekin arazo gutxiago izaten dituzte. Laosen hileko lehen egunean atzerapenik gabe jasotzen zuen soldata Roberrek eta hemen, berriz, arazo handiagoak eduki izan dituzte. Xabik, esaterako, kobratu berri ditu Jumillan jokatzen zuen garaiko zor zitzaizkion zortzi hilabeteak, eta badira bost urte handik igaro zenetik.

Zaleak

Leku batean eta bestean futbol oso modu ezberdinetan bizi dute. Hori da biek ateratako ondorioetako bat. Laosen esperientzia horrek harritu zuen Rober. "Zelaira zinemara joango balira bezala doaz, ikuskizuna ikustera. Irabaztea, galtzea edo berdintzea ez zaie gehiegi inporta".

Maila gorenetan talderik ez duten hiri eta eskualdetan bigarren 'B' maila eta hiruga-

rengoia grina handiagoarekin bizi dituztela dio Xabik. "Esaterako, Gaztela Leonen. Arandinan nintzenean, Valladolid zen bertako onena, eta probintziatik kanpora ez zuen babes handirik jasotzen. Gu ikustera jende asko etortzen zen, ondorioz".

Euskal Herrian, aldiz, beheko kategoriek ez dute hainbesteko arrakastarik izaten. Izan ere, maila altuetan hainbeste talde edukitzeak, ekipo umilagoen zaletasuna murriztu egiten du.

Momentu onenak

Arandina garaia bereziki gogoratzen ditu Xabik. Bi denboraldi igaro zituen han, horietako bat taldeko kapitaina zela. "Urte gozoak izan ziren. Batean 18 gol sartzerare iritsi nintzen, eta taldean garrantzitsua sentitu, nahiz eta 2.B-rako igoera lortu ez".

Bere anaiak, aldiz, Menorkan biak batera ibili zireneko garaia ditu gogoan. Taldeak ez zuen beste munduko erakustaldirik eman, baina anaiarekin batera etxetik kanpora aritzea oso positiboa suertatu zela uste du.

Italiarren zurruntasuna

60ko hamarkadan AC Mila- nek, Internazionalek eta Ita-

liako selekzioak arrakasta handia izan eta gero, 'cannaccio' izeneko taktikak ospea irabazi zuen. Defentsari begirako futbol estilo zurrin eta sendoa egiten zuten, eta gaur egun oraindik estigma horrekin bizi da futbol italiarra.

Bi anaiak Italian izan dira jokatzen, Xabik egun batzuk soilik igaro bazituen ere. Haien ustez topikoak bete bete definitzen du bertako futbolari. Behe kategorietakoak, behintzat. "Entrenamenduak hasi eta fisikoa bakarrik lantzen genuen lehen egunetan". Jokalari teknikoak izaki, gogor egin zitzaizen jokaldiak gehiago landu ezin izana.

Etxera itzulera

Lehenengo urtean itzuli zen Xabi Lasarte-Oriara, Ostadar taldera. Aurten bere anaia batu zaio eta duela 10 urte Menorkan izan zirenetik, lehen aldiz aritu dira elkarrekin futbolekin. Ordukoarekin alderatuta, oraingoa zeharo ezberdina dela azpimarratu dute.

Orduan eguneko 24 orduak, ia, futbolekin pentsatzen igarotzen zituzten. Orain, berriz, lanarekin gauzak aldatu dira, eta "arreta ezin zaio futbolari eskaini % 100ean". "Beharko genukeena baino nekatuago" iristen omen dira entrenamenduetara.

Sinkronia

Biak erasoko jokalariek izanda, elkarrekin ondo jokatzen dutela adierazi dute. Menorkako garailetatik batera aritu gabekoak ziren arren, bien artean futbola "eritmo berean" eta "sinkronikoki" ulertzen dutela azaldu dute.

Bien artean bi urte eskaseko aldea egonik ez da zaila elkar ulertze onaren arazoak jakitea. Batera jokatu dute beti futbolekin, konpetitzeari ekin aurretik.

Hasiera itxaropentsua

Orokorrean emaitza onak izan ditu Ostadarrek liga hasiera honetan, eta momentu honetan laugarren dira, liderrarengandik 9 puntura. Dena den, ihesi egin behar ez

zuten puntu batzuk alde egin dute. "Taldea sendoa gara, batez ere zelai erditik aurrera, eta edozein menperatzeko gai gara. Erakutsi dugu". Tolosa 2-0 gainditu zuteneko du gogoan Xabik. Dena den, hobetzeko alderdi ugari dituztela aitortu du.

Batetik, etxetik kanpora hobetu behar dutela azpimarratu du Roberrek. Bi partidu irabazi dituzte Mitxelindik at orain arte, baina hobetzeko tarteak dituela diote bi anaiek. "Erakutsi dugu emaitza onak lor ditzakegula. Lanean jarraitu behar dugu".

Oñatin Aloña Mendi garaitu zuten abenduaren 13an. Ostadarrek zelai horretan arazoak izan ohi ditu, beraz, baliteke lanak bere fruituak ematen hasia izatea.

Bestetik, partiduak sendo bukatzeko beharra nabarmendu du Roberrek. Izan ere, Ostadarrek abantaila txikiekin jokatu du askotan erdilariaren ustez. Ondorioz, berdinketak jaso dituzte azken minutuetan.

Ez da erraza golak sartzea, baina argi dago sareak aurkituz gero, gozoago eramaten direla aurrera partiduak.

Gazte eta beteranoak

2015/2016ko Ohorezko Erre- gional mailako taldean gazte eta beteranoren arteko nahas- keta berezia ematen da.

Xabi eta Rober ez dira fut- bol profesionalaren gorabehe- rak ezagutzen dituzten taldekide bakarrik. Gazteene- kin erlazio bikaina omen dute: sinbiosia dago. "Haien ilusioa eta indarra guretzat motibagarria da, eta guk urte hauetan ikasitakoa parteka- tzen saiatzen gara".

Ondorioz, taldean sortuta- ko dinamika goraiatu dute. "Denboraldian oso sartuta gaude. Laugarrenak bagara saillapenean, hirugarren izan nahi dugu; eta hirugarren izanez gero, bigarren". Ilusioare- kin jokatzen dute Ostadarreko mutilek. Xabik azpimarratu du "igoeran sinetsi" egiten duela.

Erronkaren zailtasunaren jabe da anai nagusia, baina taldeak helburu hori lortzeko beharrezko gaitasuna baduela uste du.



Eszerrean Rober Espainiako Futbolarien Elkarrekin antolatutako jardunaldietan, Moskuko CSKA taldearen aurkako partiduan. Eskuinean Xabi, Jumilla taldearekin gola ospatzen. ROBER ETA XABI GUTIERREZ



2016 zoriontsua opa dizuegu. Eguberri on!



Eneritz estetika

Deplazioa argizari hotz eta beroarekin Manikura eta pedikura Betileak tintatzea Aurpegi eta gorputz tratamenduak
679 29 82 50

Maria Luisa ileapaindegi mistoa

943 37 09 80

ZATOZ GURE JAKI GOXOAK DASTATZERA!

VINA del MAR
TABERNA-KAFETEGIA

2016 Zoriontsua opa dizuegu!

Ola kalea 2 - Lasarte-Oria-Tel. 943 36 27 68



Kolaboratzaile ofiziala
Ventanas ALCAR sariak

ALCAR
VENTANAS

Tel: **943 37 78 68** tienda@ventanasalcar.com
ventanasalcar.com facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA Plaza Oriamendi, 2 (Lehenko Doble J) 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA Ibaiondo, 4 semisotano 5-A 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Eguberri Zoriontsuak eta urte berri on!



LUIS CAR  **2016 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!**

autobusak

- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa: 943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

Buruntzara, urteari agur esatera

Abenduaren 31ean, goizean, San Roke ermita inguruan giro ederra izango da

Ostadar SKT-k eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, beste urte batez, 2015 urteari agur emateko Buruntzara irteera antolatu da. Eguraldiak laguntzen badu, urtezahar egunean goiz pasa ederra egiteko aukera dute lasarteoritarrek. Izan ere, San Roke ermitaren inguruan, gai giroan mokadutxo eta tragoxka batzuk hartzeko aukera ere izango baitute Buruntzara igotzen direnek. 2016 urtea hasteko indarrak hartzeko era ezinhobe da.

TXINTXARRI

San Roke basilizaren inguruan giro ederra izango da abenduaren 31n, goizean. Ostadar SKT eta Ttakun Kultur elkarteak antolatuta 2015 urteari agur esateko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara jaia antolatu baitute.

Herritarrek urtezahar egunean bakoitzak bere kaxara eta erritmora Lasarte-Oria eta Buruntzara arteko ibilbidea egingo luke.

Ibilaldi laburra eta luzea goa egiteko aukera dago, herritar bakoitzak bere ibilaldia antolatuko du; Lasartetik, Oriatik, Azkorteko basilizatik, Urnieta bidetik...

Gailurrera iritsi eta San Roke basilizaren ondoan dagoen aterpean indarrak

berreskuratu ahalko dituzte antolatzaileek prestatutako hamaiketakoari esker.

San Roke ermita

Aukera paregabea da ibilaldi hau Buruntzara mendia tontorrera igo eta mendia magalean, 340 metroko altueran dagoen San Roke basiliza ezagutzeko.

Basiliza hau 1908. urte inguruan eraiki zen eta abuztuaren 16an ospatzen da meza San Roke egunez, Buruntzara auzoko festak direnean. Tontorretik behera, 400 bat metrotara dago auzoa, mendia magalean.

San Roke gertu harrobi ikusgarri bat dago Andoain aldeko magalean eta baita aterpe moderno bat ere, mahaiez hornituta.



San Roke basiliza inguruko aterpean izango da hamaiketako. Iaz Buruntzara hainbat herritar hurbildu ziren. J. ERAUSKIN

Basilizari dagokionez, zementuz egindako eraikin txiki bat da, 3,8 metroko altuera duena. Barrutik ere ez da oso handia, 4,3x3 metroko azalera du, basilizara sartzeko hiru eskailera edo koxkatxo igo behar dira eta aldarea iparraldera begira dago.

Paretak azulejo txuriz apainduta daude eta aldarearen goikaldean, balio artistiko handirik ez duen San Rokeren harlanduzko irudi bat ikus daiteke, Buruntzara mendiko

harran bertan eginda.

Ermitaren kanpokaldean ur bedeinkatuaren harrizko edukiontzia eta burniz egindako atea dauzka, Erroke Deuna hitzak bertan iltzatuta dituela.

Trikitixa eta hamaiketakoa

Lasarte-Oria inguruko txokoez gozatu eta bide batez kirola egitea da Ostadar SKT eta Ttakun KEren asmoa.

Jaitxoak 10:00etan hasitako da eta bi orduz, hamaiketako goxoa egiteko aukera izango

da San Roke inguruan, txorizo errea, gazta, salda, ardo eta sagardo tragoxkarekin. Eta jai giroa borobila izateko, trikitixa soinuez girotuta izango da hamaiketakoa.

Eguraldi txarra egingo balu, mendia magalean, basiliza ondoan aterpea dago, eta sua egingo da tarte horretan epelago egoteko.

Urteari bukaera lege onean eman nahi diot aukera du mendi buelta egin eta lagun artean egoteko.



Gabonetako kontzertua eskaini zuen Alboka Abesbatzak Brigitarren komentuko kaperan.

Eguberriari abesten

Gabonak iristear dira, eta Eguberrietako giroa nabari da dagoeneko Lasarte-Orian.

Alboka Abesbatzak, esaterako, Gabonetako kontzertua eskaini zuen larunbatean Brigitarren komentuan.

20:30etan hasi zen emanaldia, kaperaren herritarrez beterik zela. Berantiarrenek atzekaldean eta zutik gozatu behar izan zuten ikuskizunarekin.

Jatorri anitzetako gabon kantak abestu zituzten. 'Ubi

Caritas' eliza abestiarekin hasi ziren, eta besteak beste, Dan Forresteren 'Arise, My Soul Arise', 'Noel nouvelet' kanta herrikoi frantsesa eta 'El cant dels ocells' katalana abestu zituzten.

Euskarazko kantez ere gozatu zuten bertaratutakoek. 'Haurtxoaren negarra', 'Birjiña maite' eta 'Non degu, non?' hautatu zituzten.

Kontzertuari 'Ukuthula' abesti hegoafrikarrarekin eman zioten amaiera

Abesbatza Montse Lato-

rek zuzendu zuen, eta Amaia Dorronsorok jo zuen pianoa.

Aurretik, udaletxean

Kalean giro bikaina zegoela ikusita, Alboka abesbatzak kontzertuaren lagintxo bat erakutsi zuen herriko kalean. 20:00ak aldera, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago, Udaletxe zaharreko aterpean abestu zuten.

Bertatik igaro ziren herritar batzuk ikusten geratu eta komentuko emanaldia ikustera gonbidatu zituzten.

Eguberrien irrikaz

Lasarte-Oriako ikastetxeerako haurrak Eguberrietako oporrak iristeko irrikitan egon dira. Baina aurretik, Eguberrietako jaialdi edo ekintza bereziak izan dituzte.


Landaberri LHkoek abenduaren 12an ospatu zuten jaialdia. Garaikoetxeko txikiak berriz lehengo ostiralean, gabon kantez osatutako emanaldia eskaini zizkieten gura-

soei. Jon Lasa musikariaren laguntza izan zuten.

Sasoeta-Zumaburuko ikasleek aldiz, atzo San Tomas eguna ospatu zuten.

Gainera, Sasoeta eraikineko gaztetxoak, kalera atera eta Jaizkibel plaza, erdialdea eta Zumaburu aldea girotu zituzten Eguberrietako doinuekin. Amaitzean, txistorra jan zuten guztiak.





Balardi Larategiak



LASARTE
 Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82

— — — — —
 Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85


— — — — —
 Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI
 Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA
 Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA
 Bermingham, bajo nº 31 • Tel. 943 28 23 23

2016 zoriontsua
opa dizuegu!



ILLARRETA ITURGINTZA



**ERAKUSKETA, DENDA ETA
BULEGOA**
 Geltoki kalea 21 - Lasarte-Oria
 Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

info@illarreta.com

TAILERRA
 Oialume Bidea, 24 - Astigarraga




- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

OLENTZERO BADATOR!!

Abenduak 24, Lasarte-Oria



16:45/ KALEJIRA Loidi Barreneko frontoitik Okendora
· Xumelak Olentzerori ongi etorria

OKENDO PLAZAN:

17:45/ Alboka

18:00/ EKITALDIA:

- Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx
- Bertso eskolako en sarrera Olentzeroren oholtzatik
- GUTUNEN JASOKETA

18:30etatik aurrera: Ttiriki Ttarraka musika eskola.

· Musika

20:00etan: Amaiera

*Eguraldi txarrarekin ekitaldia Loidiko frontoian izango da

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Ttiriki Harraka musika eskola
Porrotx, Bea eta Ramon
Xumela

Alboka
Landaberri ikastetxea
Sasoeta-Zumaburu ikastetxea


Earra bertso eskola
Amarau eta Gazte kluba
Kuadrilategi



Ttakuneko kide guztion partetik
Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Kultur Ekarlea






Egun alai eta ederrak egun txarren atzetik etortzen dira.
Egun alaitzu orrek dirdirazka datozte.
Alaitu zaitetze euzkotarrak.
Jaso biotzak ta Gabon ta Gabon zar zoriontzuak igaro.

Lehendakari Agirre, 1938



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

2016 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!




IZARRA
BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com
Geltoki kalea 19 - Tel. 943 37 13 84
Juan XXIII plaza z/g - Tel. 943 36 49 45

IPARJOY[®] A.I.E.
